



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko otsailaren 1ean

11 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru Lege proiektuak:**

—2000ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea. Akats zuzenketa (2. or.).

G SAILA:

**Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:**

—Antsoingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 1998ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (3. or.).

—Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 1998ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (19. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **2000ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea**

### **AKATS ZUZENKETA**

2000ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 18/99 Foru Legeko kontabilitate lerroetan sarturiko aldatetant akats bat antzeman da. Lege hori 2000ko urtarrilaren 4ko 1 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Ondoren zuzentzen da aipatu akatsa.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Enm. zb.	Testua
Zuzenketa teknikoa 93	10000 proiektuko 41120-6020-2-4241 kontusailaren –“Nafarroako Unibertsitate Publikoa eraikitzea” izenekoaren– kode ekonomikoa eta 40000 proiektuko 40300-6020-4224 kontusailarena –“Nafarroako Unibertsitate Publikoaren urte anitzetako plana” izenekoarena– aldatu eta aurrerantzean 7455 izanen da, harik eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantziatzeko hitzarmenak indarra hartu arte.

**G Saila:****TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Antsoingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 1998ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 22an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Antsoingo Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 1998ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1999ko azaroaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Antsoingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 1998ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina****AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburua (4. or.).
- III. Norainokoa (4. or.).
- IV. Iritzia (4. or.).
  - IV.1. 1998ko aurrekontuaren likidazioa (5. or.).
  - IV.2. Ondarearen egoera 1998ko abenduaren 31n (5. or.).
  - IV.3. Legezketasuna (5. or.).
  - IV.4. Finantza- eta ekonomia-egoera 1998ko abenduaren 31n (5. or.).
- V. Finantza-egoerako orriak (5. or.).
- VI. Antsoingo Udalari buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (8. or.).
  - VI.1. 1998ko aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkinak (8. or.).
  - VI.2. Finantza-egoera 1998ko abenduaren 31n (10. or.).
  - VI.3. Gorabeherak (12. or.).
  - VI.4. Langileen kontratazioa (12. or.).

VI.5. Kudeaketari buruzko bestelako gomendioak (12. or.).

VI.6. Hirigintza (13. or.).

VI.7. "2000 efektua" eta EUROan sartzea (15. or.).

**VII. Erakunde autonomoak (15. or.).**

I. **eranskina.** Antsoingo Udalaren organigrama, 1998-12-31ko plantilla organikoaren arabera (16. or.).

II. **eranskina.** Erabilitako adierazleen definizioa (17. or.).

1. Udalak aurkeztutako alegazioak (18. or.).

2. Udalak aurkeztu dituen alegazioei Kontuen Ganbarak emandako erantzuna (18. or.).

**I. SARRERA**

Antsoingo Udalak, Iruñerrian baitago, 6.500 biztanle inguru ditu 1998ko abenduaren 31n.

Bere jarduera burutu ahal izateko, ondoko erakunde autonomoak sortu ditu:

- Kirol eta Kultur Patronatua
- Euskara sustatzeko Patronatua
- Famili Plangintzako Patonatua

1996ko otsailaren 27an egindako osoko bilkurak hala erabakita, aurrekontu bakarra dute Udalak eta patronatuek, eta hartan, bereizi egiten da, kode baten bidez, horietariko bakoitza.

Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago –horrexek egiten du ur-hornidurako eta zabor-bilketako zerbitzuen erabateko kudeaketa.

Antsoingo Udalak ondoko elkarte eta mankomunitateetan ere parte hartzen du:

- Antsoain, Berriobeiti eta Berriozarko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.
- Emakumeari laguntzeko eskualdeko zentroa

- Etxebizitzak zaharberritzeko eskualdeko bulegoa

Ondoko laukian azaltzen dira Udalaren zein haren menpeko erakunde autonomoen 1998ko zenbatekorik adierazgarrienak:

(pezetak, milioitan)

Entitatea	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, abenduaren 31n
Udala	881	989	68
• Kirol eta Kultur Patronatua	33	11	57 <sup>(1)</sup>
• Euskara sustatzeko Patronatua	11	6	3
• Famili Plangintzako Patronatua	1	-	1

(1) 6 aldi baterako lan-kontratudunak dira, eta 51 lanaldi partzialeko begiraleak

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Antsoaingo Udalaren eta beronen erakunde autonomoen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta 1998ko ekitaldiko gastu eta dirusarrera aurrekontuen betetzea fiskalizatu ditugu.

Fiskalizaturiko toki-entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: arestian aipatutakoek eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak, hirigintza-kudeaketa eta administrazio-kontratazioa arautzen duen araudiak eta Nafarroako toki entitateei aplikatzekoa den gainontzeko araudiak.

Txostenaren helburua honako hauei buruz daukagun iritzia adieraztea da:

a) Antsoaingo Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen 1998ko ekitaldiko aurrekontuen garapena eta betetzea.

b) 1998ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraikiz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotzen ote zaion.

d) Udalaren finantza-egoera 1998ko abenduaren 31n.

## III. NORAINOKOA

Kontuen Ganbarak, bere jarduketa-programari jarraituz, Antsoaingo Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen fiskalizazioa egin du, 1998ko ekitaldiari dagokiona.

Udalak kotabilitate publikoko sistema ezarrita dauka, irailaren 21eko 271/1998 Foru Dekretuari egokitutako Toki Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorrearekin bat etorriaz. Foru dekretu horrek Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 1995 Foru Legea garatzen du, aurrekontuaren egituraz denaz bezainbatean.

Lana dirusarrerei eta gastuei dagozkien atal ekonomikoen eta ondare-masa ezberdinen ikuskapenean gauzatu da, eta antolamendu, kontabilitate eta barne-kontrolako gaiak aztertu dira.

Hirigintza alorrean, planeamenduaren exekuzioa –haren aldaketak eta aurreikuspenak bete ote diren– aztertu dugu.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz eta beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz burutu da lana.

Txostenean biltzen dira Antsoaingo Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen antolamendua, barne-kontrola, efikazia eta efizientzia hobetzeko beharrezko jotzen ditugun iruzkinak eta gomendioak.

Azterketa lana 1998ko ekainean egin da.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei.

## IV. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Antsoaingo Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen 1998ko ekitaldiko kontabilitateko egoerari aztertu ditugu, Udalaren ardurapean egin eta, laburbilduta, txosten honetako V. atalean biltzen baitira.

Gure azterlanean Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organoen Koordinazio Batzordeak sektore publikoko kontu-ikuskaritza egiteko onetsitako arau eta prozedurak erabili ditugu.

Eginiko azterketak honako iritzi hau eragin du:

#### IV.1. 1998KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Honekin batera doan 1998ko aurrekontuaren likidazioak behar bezala erakusten ditu fiskalizaturiko ekitaldian Udalak eta haren menpeko erakunde autonomoek egin dituzten eragiketak.

#### IV.2. ONDAREAREN EGOERA 1998KO ABENDUAREN 31N

Ibilgetua osatzen duten saldoak fidagarriak ez direnez eta udal inbentarioa eguneratu gabe dagoenez –azkena 1995ekoa da–, ezin dugu irizirik eman Udalaren 1998ko abenduaren 31ko ondarearen egoerari buruz.

#### IV.3. LEGEZKOTASUNA

Antsoaingo Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa, oro har, legezketasun-printzipioari jarraituz burutzen da; halere, aztertutako laginaren arabera, Kirol eta Kultur Patronatuko langileen kontratazio arloan zenbaitetan indarreko araudia urratu da.

#### IV.4. FINANTZA- ETA EKONOMIA-EGOERA 1998KO ABENDUAREN 31N

Antsoaingo Udalaren 1998ko abenduaren 31ko finantza-egoera garbia da; izan ere, diruzaintzako gerakina adierazgarria da –296 milioi

pezeta–, aurrezki garbiko ehunekoa altua –ehuneko 26– eta epe luzerako zorra, berriz, 135 milioi pezetakoa.

Laburbilduz, eta **ondorio orokor gisa**, hauxe esan dezakegu: Antsoaingo biztanleria hazi egin da azken urteotan –1995eko hasiera aldean 5.107 biztanle zituen, eta 1998ko abenduaren 31n, aldiz, 6.500–, eta halere herritarrei zerbitzu publikoak –derrigorrezkoak zein borondatezkoak– eskaintzea lortu du.

Eta hori guztia finantza-egoera ona izaki, zeinari esker baliabide berekiekin aurre egin ahal izanen baitie inbertsio plan berriei.

### V. FINANTZA-EGOERAKO ORRIAK

Jarraian, Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen finantza-egoerako orriak aurkeztuko ditugu. Txostena baliagarriagoa izan dadin, azalpena honako hauetara mugatuko dugu:

- Gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera.
- Udalaren gastuen aurrekontuaren likidazioa, kode funtzional/ekonomikoaren arabera.
- Udalaren egoera-balantzea, 1998ko abenduaren 31n.
- Diruzaintzako gerakina, 1998ko abenduaren 31n.

### Antsoaingo Udala 1998 Dirusarreraren aurrekontuaren betetzea

	Hasierako Kap. aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko eskubideak	Kobratuta	Kobratzeke	Betetzearen %	Aitorturiko %	
	(Pezetak, milakotan)			(Euroak, milakotan)		(Pezetak, milakotan)				
Zuzeneko zergak	1	132.030	-	132.030	154.044	925,823	88.517	65.527	117	16
Zeharkako zergak	2	105.241	-	105.241	87.508	525,934	82.319	5.189	83	9
Tasak eta bestelako dirusarrerak	3	134.707	-	134.707	143.223	860,788	132.248	10.975	106	14
Transferentzia arruntak	4	210.472	29	210.501	198.230	1.191,386	179.534	18.696	94	20
Ondare bidezko dirusarrerak	5	7.135	-	7.135	12.161	73,089	11.216	945	170	1
Inbertsio errealak besterentzea	6	58.692	-	58.692	58.693	352,752	58.693	-	100	6
Kapital-transferentziak	7	614.051	-	614.051	335.153	2.014,310	249.204	85.949	55	34
Finantza-aktiboaren aldaketa	8	-	176.493	176.493	-	-	-	-	-	-
<b>Dirusarrerak, guztira</b>		<b>1.262.328</b>	<b>176.522</b>	<b>1.438.850</b>	<b>989.012</b>	<b>5.944.082</b>	<b>801.731</b>	<b>187.281</b>	<b>69</b>	<b>100</b>

## Gastuen aurrekontuaren betetzea

	Hasierako Kap. aurreikuspena	Alda- ketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko obligazioak	Ordainduta	Ordaintzeke	Betetzearen %	Aitorturiko %	
	(Pezetak, milakotan)			(Euroak, milakotan)		(Pezetak, milakotan)				
Langileen ordainsariak	1	304.446	(736)	303.710	269.695	1.620,900	265.676	4.019	89	31
Ondasun arruntak eta zerb. erostea	2	164.655	20.548	185.203	143.105	860,078	130.611	12.494	77	16
Korrituak	3	18.330	(800)	17.530	16.702	100,381	16.702	-	95	1
Transferentzia arruntak	4	23.613	4.863	28.476	24.754	148,775	14.400	10.354	87	3
Inbertsio errealak	6	735.201	30.925	766.126	288.702	1.735,134	273.715	14.987	38	33
Finantza-pasiboan aldaketa	9	16.083	121.722	137.805	137.805	828,225	137.805	-	100	16
<b>Gastuak, guztira</b>		<b>1.262.328</b>	<b>176.522</b>	<b>1.438.850</b>	<b>880.763</b>	<b>5.293.492</b>	<b>838.909</b>	<b>41.854</b>	<b>61</b>	<b>100</b>

## Antsoaingo Udala

## 1998ko aurrekontuaren betetzea, kode funtzional/ekonomikoaren arabera

(pezetak, milakotan)

Funtzio- nala	Deskribapena	Langileria- gastuak	Ondasun arruntak eta zerbitzuak	Finantza- gastuak	Transferentzia arruntak	Inbertsio errealak	Kapital- transferentziak	Finantza- aktiboak	Finantza- pasiboak	Aitorturiko obligazioak, guztira	Guztizk. gaineko %
01	Zor publikoa	-	-	16.698	-	-	-	-	137.805	154.503	18
11	Gobernu-organoak	-	7.072	-	-	-	-	-	-	7.072	1
12	Administrazio orokorra	23.685	11.825	-	374	15.376	-	-	-	51.260	6
22	Segurtasun eta babes zibila	31.473	2.269	-	-	-	-	-	-	33.742	4
31	Segurtasun eta gizarte-babesa	86.757	317	-	14.241	-	-	-	-	101.315	12
32	Gizarte-sustapena	9.999	3.548	-	-	-	-	-	-	13.547	1
41	Osasuna	956	720	-	-	-	-	-	-	1.676	-
42	Hezkuntza	40.897	19.088	-	3.165	613	-	-	-	63.763	7
43	Etxebizitza eta Hirigintza	2.740	29.834	-	97	237.055	-	-	-	269.726	31
44	Komunitate-ongizatea	7.422	1.632	-	36	-	-	-	-	9.090	1
45	Kultura eta kirola	51.451	62.049	4	2.571	35.580	-	-	-	151.655	17
46	Bestelako komunitate- eta gizarte-zerb.	-	-	-	4.270	-	-	-	-	4.270	-
61	Araupetze ekonomikoa	14.315	4.561	-	-	78	-	-	-	18.954	2
62	Merkataritza-araupetzea	-	190	-	-	-	-	-	-	190	-
	<b>Guztira</b>	<b>269.695</b>	<b>143.105</b>	<b>16.702</b>	<b>24.754</b>	<b>288.702</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>137.805</b>	<b>880.763</b>	<b>100</b>

Antsoaingo Udala  
Balantzea, 1998-12-31n

AKTIBOA	(pezetak, milakotan)	(euroak, milakotan)	PASIBOA	(pezetak, milakotan)	(euroak, milakotan)
IBILGETUA	3.020.055	18.150,895	ONDAREA	2.537.011	15.247,743
Ibilgetu materiala	1.600.961	9.621,969	Ondarea	1.232.598	7.408,063
Lurrak eta ondasun naturalak	153.856	924,693	Lagatutako ondarea	(96.238)	(578,402)
Eraikinak	1.372.504	8.248,915	Erabilera orokorrari emandako ondarea	(35.281)	(212,043)
Makineria, instalazioak eta tresneria	34.877	209,615	Ondarea, lagapenean	44.571	267,877
Garraio-elementuak	2.875	17,279	Aplikatzeko dauden emaitzak	1.391.361	8.362,248
Altzariak	20.694	124,373			
Informazio-prozesuetarako ekipamenduak	16.155	97,094	KAPITAL-DIRULAGUNTZAK	356.064	2.139,988
			Jasotako kapital-dirulaguntzak	356.064	2.139,988
Ibilgetu ez-materiala	79.482	477,696			
Bestelako ibilgetu ez-materiala	79.482	477,696			
			EPE LUZEKO ZORRAK	135.155	812,298
Erabilera orokorreko ondasunak eta inb.	1.339.442	8.050,208	Epe luzerako maileguak	135.155	812,298
Lurrak eta ondasun naturalak	1.336.824	8.034,474			
Herri-ondasunetako inbertsioak	2.618	15,734	EPE LABURREKO ZORRAK	54.538	327,780
			Agindutako ordainketengatiko hartzekod.	42.513	255,509
Finantza-ibilgetua	170	1,022	Entitate publikoak	7.347	44,156
Kotizazio ofizialeko akzioak	20	0,120	Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekod.	4.678	28,115
Kotizazio ofizialik gabeko akzioak	150	0,902			
ZORDUNAK	279.367	1.679,030			
Aitorturiko eskubideengatiko zordunak	270.998	1.628,731	APLIKATZEKE DAUDEN KONTUSAILAK	35	0,210
Entitate publikoak	5.034	30,255	Aplikatzeko dauden bestelako kontusailak	35	0,210
Beste hainbat zordun, aurrekontuz kanp.	3.335	20,044			
FINANTZA-KONTUAK	154.826	930,523	EMAITZAK	371.445	2.232,429
Kutxa	615	3,696	Ekitaldiko emaitzak	371.445	2.232,429
Kreditu-erakundeak eta bankuak	154.211	926,827			
ORDENA-KONTUAK	122.696	737,418	ORDENA-KONTUAK	122.696	737,418
Gordailuko baloreak	122.696	737,418	Gordailuko baloreak	122.696	737,418
AKTIBOA, GUZTIRA	3.576.944	21.497,866	PASIBOA, GUZTIRA	3.576.944	21.497,866

Antsoaingo Udala  
Diruzaintza-gerakinaren egoera 1998-12-31n

	Zenbatekoak (pezetak, milakotan)
1 (+) Ekitaldi-bukaeran kobratzeke dauden zordunak	195.615
Dirusarrera-aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	187.281
Dirusarrera-aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	83.717
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketekoak	8.369
Ken kobratzen zailak diren saldoak	(83.717)
Ken behin betiko aplikatzeke dauden eta egin diren dirusar.	(35)
2 (-) Ekitaldi-bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak	(54.538)
Gastu-aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	(41.854)
Gastu-aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	(659)
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketekoak	(12.025)
3 (+) Ekitaldiaren bukaeran diruzaintzan diren fondo likidoak	154.827
4 Finantziazio atxikia duten gastuei atxikitako gerakina	99.885
5. Atxikitako baliabideetako diruzaintza-gerakina	58.693
6 Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina (1 - 2 + 3 - 4 - 5)	137.326
Diruzaintza-gerakina, guztira	295.904

## VI. ANTSOAINGO UDALARI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

### VI.1. 1998KO AURREKONTUAREN BETE-TZEARI BURUZKO IRUZKINAK

• Gastuen eta dirusarreraren 1998ko aurrekontuan 1.262 milioi pezetako hasierako kreditua azaltzen da; gero, ordea, gastuen eta dirusarreraren aurrekontu-aldaketak gertatu dira, batez ere aurreko ekitaldiko diruzaintza-gerakina -177 milioi- gehitu delako.

Horrenbestez, behin betiko aurreikuspena edo aurrekontu bateratua 1.439 milioi pezetakoa da.

• Aitorturiko obligazioek 881 milioi pezeta egiten dute; betetze maila ehuneko 61ekoa da, eta halakoa izan da, batik bat, inbertsio errealean kapituluaren betetze mailarengatik -ehuneko 38, hau da, aurreikusitakoa baino 477 milioi gutxiago.

Ondokoengatik gertatu dira, batez ere, inbertsio errealean kapituluaren desbideraketa horiek:

	Pezetak, milakotan
Udaletxe berria	102
Kultur Etxea	83
Hirigintza kudeaketa	253
Bestelakoak	39
Guztira	477

1999an zehar ari dira inbertsio horiek egiten.

Gastuen aurrekontua honela banatzen da:

Gastuak	Ehunekoak
Funtzionamendua	50
Inbertsioa	33
Finantza-zama	17
Guztira	100

Ikusten den bezala, gasturik handiena funtzionamenduari dagokio -langileak, ondasunak eta transferentzia arruntak-, Udalak gastatutakoaren ehuneko 50 hartzen baitu -langileentzako ehuneko 31 erabiltzen du-. Finantza-zamak ehuneko 17 egiten du; ehuneko hori altua da ekitaldian zehar egindako aurretiazko kapital-amortizazioengatik -123 milioi pezeta.

Ondokoek ematen zituzten zerbitzuak 1998ko abenduaren 31n:

Mota	Ehunekoak
Funtzionarioak	29
Lan-kontratudun finkoak	9
Behin-behinekoak eta programetakoak	30
Guztira	68

Oharra: ez dira kontuan hartu erakunde autonomoetakoak



Kontabilitate- eta administrazio-alorrean 7 pertsona aritzen dira lanean: idazkari bat, kontuhartzaile bat, gordailuzain bat eta lau administrari-ofizial.

Goi karguen –alkatea eta zinegotziak– ordain-sariek 4,6 milioi egiten dute (0,7 alkateari dagozkie, eta 1,8 enpresei, lan egindako orduengatik). Alkateak eta zinegotziak jasotzen dituzten zenbatekoei ez zaie PFEZko atxikipenik egiten.

Aitorturiko eskubideek 989 milioi pezeta egiten dute, eta betetze maila ehuneko 69koa da. Hori hala da, gehien bat, kapital-transferentzien kapituluaren betetze mailarengatik –aurreikusitako zenbatekoa 614 milioi pezetakoa da, eta zenbateko erreala, aldiz, 335 milioi pezetakoa; betetze maila, hortaz, ehuneko 55ekoa izan da– eta diruzaintza-gerakinen bidez finantzaturiko aurrekontu aldaketen eraginarengatik –177 milioi.

Ondokoak dira ehunekoak:

Dirusarrerak	Ehunekoak
Tributu bidezkoak	39
Transferentzia bidezkoak	30
Hirigintza kuotak	24
Ondare bidezkoak	7
Guztira	100

1998ko aurrekontuko finantza-iturri nagusia, hortaz, tributu bidezko dirusarrerak dira –aitorturiko 100 pezeta bakoitzeko 39 datoz finantza-iturri horretatik; transferentzia bidezko dirusarrerak, aldiz, ehuneko 30 egiten dute.

Ondoko laukian tributu mota nagusiak eta 1998an horiengatik aitorturiko zenbatekoak azaltzen dira:

	(pezetak, milioitan)
Tributu mota	Zenbatekoa
Hirilur kontribuzioa	69
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	23
Lursailen balio igoeraren gaineko zerga	39
Eraikinen, instalazioen eta obren gaineko zerga	88
Ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga	23
Kirol instalazioak	96
Haur Eskolak	10
Irekitze-lizentziak	5

Udalak bildutako zergak direla-eta, ondoko laukian azaltzen dira Udalak aplikatutako tarifak,

zerga motaren arabera, eta Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak baimendutakoak:

Tributu mota	Ehunekoa/Indizea	
	Udala	Toki Ogasunei buruzko Legea
Hirilur kontribuzioa	0,32	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1	1 - 1,4
Lursailen balio igoeraren gaineko zerga	20	8 - 20
• 5 urte bitarte	3,4	2,4 - 3,4
• 10 urte bitarte	3,3	2,1 - 3,3
• 15 urte bitarte	3,3	2,0 - 3,3
• 20 urte bitarte	3,2	2,0 - 3,2
Eraikinen, instalazioen eta obren gaineko zerga	5	2 - 5

Nabarmena da kirol instalazioen pisua, hots, udal igerilekuetako sarrera eta abonuena, bai eta eraikinen, instalazioen eta obren gaineko zergarena ere, gainontzeko tributuak aise gainditzen baitituzte.

Udalak ez ditu ordainarazten luxu gastuen eta bete gabeko etxebizitzaren gaineko zergak, nahiz eta, indarreko legeriarekin bat, udal entitateak aukera hori izan. Adierazi digutenez, ondokoak dira ez ordainarazteko arrazoiak: lehenengoaren kasuan, horri lotutako jarduera gutxi dagoela Udalean, eta bigarrean, berriz, zaila dela hori ezartzea eman ditzakeen etekinekin konparatuz gero.

• 1998ko betetze-egoera bateratuak 108 milioi pezetako aurrekontu-superabita du, aitorturiko eskubide eta obligazioen arteko aldearen ondorio dena. Saldo horretan, gastuak diruzaintzako garbierekin bidez finantzatzetik eta finantziazio-desbideratzetik sortzen diren doikuntzak eginez gero, ekitaldiko aurrekontu-emaizta 167 milioikoa da.

• 1998ko abenduaren 31n, ordaintzeke zeuden kopuruak –gastuen erresultak– 43 milioikoak ziren; horietatik, milioi bat aurreko ekitaldietako zen.

• Kobratzeke zeuden kopuruak –dirusarreraren erresultak– guztira 271 milioikoak ziren; jatorria aurreko ekitaldietan zeukatenak ehuneko 31 ziren –84 milioi–. Zenbateko horretatik, 65 milioiko zorrak errekurtsioa du paratua, eta Udalaren aldeko abala dago ezarria.

• 1998ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakina 296 milioikoa zen. Kopuru hori honako honen emaitza da: ordaintzeke zeuden 55 milioiko zorrak; kobratzeke zeuden 196 milioiko dirusarrerak eta 155 milioiko fondo likidoak. Itxitako ekital-

dietatik kobratzeke dauden zenbatekoak kobratzen zail jotzen dira.

• Ondoko laukian, gastuen 1998ko aurrekontu bateratuaren betetzearen ehunekoa azaltzen da, funtzioen arabera sailkatuta:

Deskribapena	Ehunekoa
Zor publikoa	18
Gobernu organoak	1
Administrazio orokorra	6
Segurtasuna eta babes zibila	4
Segurtasuna eta gizarte-babesa	12
Gizarte sustapena	1
Hezkuntza	7
Etxebizitza eta Hirigintza	31
Ongizatea	1
Kultura eta kirola	17
Ekonomia-araubidea	2
Guztira	100

Aipatzekoa da Udalaren 1998ko gastuaren ehuneko 80 Hirigintza, Kultura eta kirola, Administrazio orokorra, Babes zibila eta zor publikoan metatzen dela.

Zor publikoa hain nabarmena da, hain zuzen ere, 1998ko ekitaldian 123 milioi pezetako mailegu bat –epe luzerakoa– behar baino lehenago likidatu duelako Udalak, guztira gastuaren ehuneko 80 egiten baitu.

#### VI.2. FINANTZA-EGOERA 1998KO ABENDUAREN 31N

Ondokoak dira Udalak 1998an azaltzen dituen ratio edo adierazleak –1997ko datuekin alderatuta:

Adierazleak	1998 (1)	1997 (1)(2)
Aurrekontu superabita (pezetak milioitan)	108	158
Biztanleko dirusarrerak (pezetatan)	152.156	123.705
Biztanleko gastuak (pezetatan)	135.502	97.410
Biztanleko finantza-zama (pezetatan)	23.770	5.779
Biztanleko tributu bidezko dirusarrerak (pezetatan)	59.196	64.138
Kobraketen betetzea (ehunekoa)	81	75
Ordainketen betetzea (ehunekoa)	95	92
Zorpetze maila (ehunekoa)	26	6
Zorpetze muga (ehunekoa)	26	33
Aurrezki garbia (ehunekoa)	1	27
Langileen indizea (ehunekoa)	31	44
Inbertsioen indizea (ehunekoa)	33	26
Dirulaguntzekiko menpekotasuna (ehunekoa)	30	30

(1) Kalkuluak egitearren, 1998ko urtarrilaren 1eko errolda hartu da 1997rako –6.027 biztanle–, eta 1998ko bukaera aldeko errolda 1998rako –6.500 biztanle.

(2) Fiskalizatu gabeko ekitaldia.

Hona azterketa horretatik zer nabarmentzen dugun:

- Aurrekontuko superabita 50 milioi jaitsi da 1998an. Jaitsiera hori, neurri batean, 123 milioi pezetako mailegua behar baino lehenago likidatu izanari zor zaio.

- Biztanleko dirusarrerak ehuneko 23 igo dira, eta gastuak, berriz, ehuneko 39. Horri ere zor dakioke superabita jaitsi izana.

- Biztanleko tributu bidezko dirusarrerak ehuneko 8 jaitsi dira. Jaitsiera hori, neurri batean, 52 milioiko isun bat –etxegile bati urbanizazio obratan berandutzeagatik jarria– 1997ko ekitaldian tributu bidezko dirusarrera gisa erregistratu izanari zor zaio.

- Maileguaren amortizazio aurreratuaren eragiketarik justifikatzen du biztanleko finantza-zama eta zorpetze-maila igo izana, bai eta aurrezki garbia jaitsi izana ere. Zorpetze maila pittin bat jaitsi da, batez ere –arestian aipatu bezala– 52 milioiko isun bat 1997ko ekitaldian erregistratu zelako.

- Langileen gastuen ehunekoa jaitsi bada ere, haren balio absolutua ehuneko 6 igo da. Inbertsioen indizea, berriz, igo egin da, batik bat Udalak 1998ko ekitaldian egindako inbertsioak –urbanizazio obrak batez ere– igo direlako.

Hona 1998ko abenduaren 31ko finantza-egoera (milioi pezetatan):

Adierazleak	1998
Diruzaintzako gerakina	296
Epe luzerako zorrak	135

Hau da, diruzaintzako gerakinak aise estaltzen ditu epe luzerako zorrak eragindako finantza-beharrizanak, eta, era berean, 1999ko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioak finantzatzeko iturri aproposa da.

1998an, 123 milioi pezetako zorra behar baino lehenago likidatu da. Ondokoak dira 1998an itzulzteke dauden maileguak: Nafarroako Rural Kutxak udal igerilekuak egiteko 1996an emandako 73 milioi eta Nafarroako Gobernuako Etxebizitza Departamentuak 1991n etxebizitzak sustatzeko emandako 62 milioi. Mailegu horiek, hurrenez hurren, 2016 eta 2009an dute epemuga, eta merkatuko tasaren arabera aldatzen diren korrituak sortuko dituzte urtero.

1997ko ekitaldiko aurrezki gordina 196 milioi pezetakoa da, eta 1998ko ekitaldikoa, aldiz, 158koa. Horrenbestez, 1999an antzeko aurrezki gordina gertatuz gero, Udalak baliabide aski izanen luke 1998ko abenduaren 31n dagoen zorra aurretiaz likidatzeko.

Azkenik, ondoko laukian alderatu egiten dira, ratio jakin batzuetarako, Antsoaingo Udalaren 1998ko informazioa eta Nafarroan bizatanle-tarte bera duten udalen 1997ko batez bestekoa<sup>(1)</sup>.

Ratioak	5.000-10.000 biztanle bitarteko udalak, 1997	Antsoain, 1998
Biztanleko gastu arruntak (pezetatan)	64.078	69.889
Biztanleko dirusarrera arruntak (pezetatan)	94.874	91.564
Biztanleko tributu bidezko dirusarrerak (pezetatan)	58.560	59.196
Zorpetze muga (ehunekoa)	35	26
Zorpetze maila (ehunekoa)	7	26
Zorpetze maila (amortizazio aurreraturik gabekoa)		5
Zorpetze ahalmena (ehunekoa)	28	1
Zorpetze ahalmena(amortizazio aurreraturik gabekoa)		21

(1) Toki Administrazioako Departamentuak igori eta Kontuen Ganbarak Toki Sektore Publikoari buruzko 1997ko txostenean argitaraturiko datuak.

Konparazio horren mugak gorabehera<sup>(2)</sup>, adierazgarriena da:

- Antsoaingo biztanleko gastu arrunta maila bereko Udaletakoa baino ia 5.000 pezetakoa da.
- Los habitantes de Ansoáin aportan unos ingresos tributarios muy semejantes a la media.
- Su capacidad de endeudamiento es inferior a la media, pero está justificado como consecuencia de la amortización anticipada de préstamos.

### VI.3. GORABEHERAK

Udalak emandako informazioaren arabera, hauexek dira ebatzi beharreko errekurtsorik behinenak:

- Gora jotzeko errekurtsua, 1996ko abenduaren 18ko gobernu batzordeak argiteria publikoa berritzeko obrak adjudikatzearen hartutako erabakiaren aurka enpresa batek jarria. Horren bidez, 1,8 milioi pezetako kalteordaina eskatzen du kalte-galerak direla-eta.
- Administrazioarekiko hainbat auzi-errekurtsio, UPR-1 eta UPR-2 unitateak birzatzitzeko proiektuen behin betiko onespeneraren aurkakoak.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, urbanizazio obra batzuetan berandutzeagatik ezarritako 52,2 milioi pezetako isuna jartzearen aurkakoak.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, hiri-gintza aprobetxamenduaren likidazioaren aurkakoak, behar baino 8,3 milioi pezeta gehiagokoa izan baita.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, enpresa batek jarria, administrazioaren isiltasunaren bidez ukatu egin zelako 9,3 milioi pezetako kalteordaina, urbanizazio obra batzuk ez esleitzeagatik.

### VI.4. LANGILEEN KONTRATAZIOA

Egindako lanaren ondorioz, hauxe ikusi dugu: "Langileen gastuak" kapituluan, Kirol eta Kultur Patronatuan lan egiten duten langileei ordaindutako ordainsariak azaltzen dira, horiekiko kontratutoturarik ezarri ez den arren.

Hori da, hain zuzen ere, lanaldi partzialean –astean 2 eta 3 ordu bitarte– lan egiten duten 51 begiraleen kasua, urtean 8 milioi pezetako kostua baitute. Ordainsari horien karia ez da egiten ez PFEZko atxikipenik ez gizarte segurantzako koti-

zaziorik, eta horiek ez dute lanpostua eskuratu indarreko legediarekin bat etorriaz.

*Hona gure gomendioa: lan-kontratu zein zerbitzuen errentamendu bidezko harremana ezartzea esleipen edo kontraturik gabeko lanak egiten dituztenekin, bai eta zerga-legediaz eta langileen kontratazioaz denaz bezainbatean indarreko lege-dia betetzea ere.*

Halere, Udalak adierazi digun legez, auzi hori konpondu egin da 1999an, zerbitzua enpresa batekin kontratatu baita.

### VI.5. KUDEAKETARI BURUZKO BESTELAKO GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Ganbara honen aburuz Udalak jarraitu behar dituen gomendio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

Zenbait alderditan, aipatzen ditugun gomendioak dagoeneko ezarrita daude, edo 1999ko ekitaldian zehar ezartzekotan daude.

#### VI.5.1. Antolamendu orokorra

Hona gure gomendioak:

- *Barne Araubideari buruzko Erregelamendu bat ezartzea. Horren bidez Udalaren organo exekutiboaren artean eskumenak zehaztu eta banatu behar dira, bai eta erakunde autonomoekin izan beharreko harremanak ere.*
- *Oroit-idazkia entitatearen finantza-egoerako orritzat lantzea, Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra ezartzen dituen xehetasunak emanaz.*
- *Oinarrizko kudeaketa-prozedurak idatziz jarritzea, eta exekuzio-fase bakoitzerako arduradunak identifikatu eta esleitzea.*

#### VI.5.2. Inbentarioa-lbilgetua

Hona gure gomendioak:

- *Udal ondasunak –bai jabetza publikokoak, bai ondarekoak eta herri-ondasunak ere– eskrituratzeko eta erregistratzeko prozesua osatzea.*
- *1995eko udal inbentarioa eguneratu eta onestea.*
- *Udal inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

(2) Zerbitzu publikoak emateko moduan eta kalitatean dauden ezberdintasunak gogorarazi nahi ditugu.

- *Altak eta bajak kontabilizatzeko prozedurak definitu eta ezartzea, eta ibilgetuaren dokumenta - zioa artxibatzea kontu horiei aplikatzekoak zaiz - kien kontabilitate-irizpideei jarraituz.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak berrikusi eta depuratzea, behar bezala azal ditza - ten Udalaren ondasunak.*

### VI.5.3. Diruzaintza

Hona gure gomendioa:

- *Kutxako zenbaketak egin izana dokumenta - tzea, udal fondoan arduradunek sinatutako agirien bidez.*

- *Kutxako mugimenduak, udal fondoan ardura - dunak baimendu behar baititu, liburu osagarri batean jasotzea.*

### VI.5.4. Langileak

Hona gure gomendioak:

- *Ekitaldi bukaerako saldoen gaineko berraz - terketak sistematikoki aplikatzea eta kontabilitate - aren eta nominen laburpenaren arteko adospenak nahiz aitortpenen atxikipenei buruzkoak aldian - aldian egitea.*

- *Aplikazio informatikoa egokitzea, nominen laburpen zuzenak lortzearen.*

- *Langile bakoitzaren famili egoerari buruzko aitortpen sinatua lortzea.*

- *Langileen absentismoari buruzko zenbakizko informazioa prestatzea.*

- *Udalbatzako kideei osoko bilkuretan eta batzordeetan parte hartzeagatik egindako ordain - ketak PFEZko atxikipen-sistemara lotu ala ez aztertzea.*

### VI.5.5. Hornidurak erostea eta zerbitzuak ematea

Hona gure gomendioak:

- *Udalari zein erakunde auronomei aplikatuta - ko erosketa prozedura idatziz garatzea, eta ahol - kularitza juridikoaren eta udal kontu-hartzailatza - ren zeregina espresuki definitzea.*

- *Hornidura- zein zerbitzuen errentamendu - kontratua formalizatzea eta horiek lehiaketa edo enkante bidez esleitzea, zerbitzuen kudeaketa ahalik eta eraginkorrena izan dadin.*

### VI.5.6. Inbertsioak

Ondoko kontratazio espedienteak berraztertu dira –alde batera utzita haiek zenbait urtetako aurrekontuei egotzi behar zaizkiela:

Espedientea	Esleipen prozedura	Pezetak, milioitan (*)
UDR-1 unitatea urbanizatzea	Lehiaketa	90
UDR-2 unitatea urbanizatzea	Lehiaketa	110

(\*) Obraz gainera, teknikarien lansarien kostua ere, halakorik izanez gero, biltzen du.

Aztertutako bi espedienteek kapitulu horretako obligazioen ehuneko 70 egiten dute.

Bi espediente horiek herrian etxebizitzak sustatzeko urbanizazio obrei buruzkoak dira –unitate bakoitzeko lurzatien jabeek ordaindutako urbanizazio kuoten bidez finantzatzen dira obrak–. Hala, 1998ko ekitaldian, kontzeptu horrengatik 96 milioi pezetako dirusarrerak izan dira UDR-1 unitatean, eta 137 milioi pezetakoak UDR-2an.

Egindako azterketaren arabera, indarreko araudia behar bezala bete da, eta zuzen egin da espedienteen kontabilitate- eta administrazio-jarraipena.

### VI.5.7. Tributu-dirusarrerak, tasak eta prezio publikoak

- *Dirusarreraren kudeaketaren ondoriozko datuak eta dirusarrera horien kontabilitate-erregis - troko eta dirubilletako datuak adostu eta aldera - tzeko bidea emanen duten prozedurak diseinatu eta sistematikoki aplikatzea. Helburua da kontabi - litateari eta aurrekontuari buruzko informazioan segurtasun eta fidagarritasun handiagoa lortzea.*

- *Ordaintzeko dauden zorretan, behar diren berandutze-korrituak exigitzea.*

- *Tasa eta prezio publikoek jasaten dituzten kostuei buruzko azterlanak aldian-aldian egunera - tzea.*

### VI.5.8. Alderdi orokorrak

- *Gastuak eta dirusarrerak beren sortzapena - ren arabera kontabilizatzea, aurrekontu-betetzea - ren jarraipen egokia egin ahal izateko.*

- *Aurrekontu-aldaketei buruzko espedienteak gertatzen diren unean bertan osatzea, desfaserik gerta ez dadin horiek kontabilizatu, informatu eta onetsi bitartean.*

## VI.6. HIRIGINTZA

### VI.6.1. Alderdi orokorrak

Antsoainen indarra duen planeamentua 1997ko azaroaren 14an onetsitako udal plana da. Hiri Antolamenduko Plan Orokorra 1983an onetsi zen, eta 1994an aurreko planaren aldaketa bat.

Horien arabera, ondokoak dira hirigintzako helburu nagusiak:

a) Udala protagonista izatea eta jarrera aktibogoa edukitzea planeamenduaren garapenean.

b) Udalean bizi direnen bizi kalitatea hobetzea. Hartara, behar bezala diseinatuko da etorkizuneko hazkundea eta egokitu egingen dira ekipamenduak, hazkunde horrek sortutako beharrezanekin bat etorriaz.

c) Eskualdeko hirigintza arauen eta udal planeo irizpideen eta helburuen arteko koordinazioa eta koherentzia, Antsoainen eragina duten eskualde mailako aferak direla-eta.

Helburu nagusi horiek berariaz garatzen dira herriko jendegune bakoitzean.

Ondoko laukian azaltzen dira luraren sailkapena eta bilkaera –kontuan izan behar da aztertutako dokumentazioan ez direla espruki aipatzen.

Lurra (m <sup>2</sup> -tan)	Bateratua, 1997ko plana	Proposatua, 1997ko plana
Hiri lurzorua	348.936	216.016
Urbanizagarria	38.526	238.435
Urbanizaezina (gutxi gorab.)	1.500.000	1.100.000

1994ko berrazterketak 1.300 etxebizitzatan igo zuen horien kopurua, guztira 2.816 etxebizitza. 1997ko planak, berriz, 1.000 etxebizitza gehiagoko igoera gehigarria aurreikusten du, garatu beharreko unitateei (UDE1, 2, 3 eta 4) eta SR sektoreari dagozkienak.

#### VI.6.2. Finantza- eta ekonomia-azterlana

Udalak ez du idatziz jaso finantza- eta ekonomia-azterlanaren berariazko jarraipenik.

Halere, komeni da adieraztea ezen, gaur egungo legeriari jarraikiz, eskakizun hori soilik dela derrigorrezkoa 10.000 biztanletik gorako entitateen planetarako.

#### VI.6.3. Planeamenduaren garapena eta betetzea

1997an onetsitako udal planaren oroit-idazkiaren arabera, 1994ko plan orokorraren berrazterketaren garapen maila altua da, eta Antsoainen hirieraldaketa handia ekarri du. Garapen horri esker, Antsoainek gainditu egin ditu, nabarmen gainditu ere, 90eko hamarkadaren hasieran hiri-garapen alorrean zituen gabeziak.

Une honetan, urbanizatzen ari dira UDR-1 eta UDR-2 exekuzio unitateak. UDE izeneko unitateen garapena baizik ez da atzeratu 1994ko berrazterketan aurreikusitako unitateetan. UDE-4 unitateari dagokionez, ekimen partikular baten bidez planteatu zen hura unitate txikiagoetan zati-

tzea, baina Udalak, edukia ikusita, ez zuen banaketa hura onetsi, eta une honetan administrazioarekiko auzi-errekurtso bat dago jarrita hori delata.

Planeamenduaren garapena unitate bakoitzari buruzko hirigintza araudian biltzen da. Honakoak dira, batik bat, exekuzio prozedurak: birzatiketa, urbanizazio proiektua eta xehetasun azterlana.

Planeamenduko aldaketak direla-eta, adierazi beharra dago ez dela bera ere onetsi 1997ko udal plana onetsi zenez geroztik. 1994ko berrazterketan, 1992 eta 1993an zehar izapidatutako aldaketa puntual batzuk bildu ziren, exekuzio unitate jakin batzuei eragiten zietenak eta 1993tik hona garatu direnak.

#### VI.6.4. Kontabilitate- eta hirigintza-obligazioak.

Udalak ez du lurzorua udal ondarea eratu; ondare horren bidez lortu diren dirusarrerak ez daude formalki lotuta ondarea kontserbatu, mantendu eta zabaltzeari.

#### VI.6.5. Hirigintzaren kudeaketa

Udalak ez du hirigintza arloko teknikaririk bere plantillan. Hirigintza planeamenduaren kudeaketa eta izapidaketa teknikoak kanpoko aholkulari batek egiten du.

Azkenik, aurreko iruzkinak aztertuta, hona gure gomendioak:

- *Oro har, ezarritako hirigintza-betebeharrak betetzea.*

- *Hirigintzako espediente administratibo orok ondokoak egiteko behar den dokumentazioa jaso dezan saiatzea:*

a) *Garbitasuna eta publikotasuna bermatzea.*

b) *Erabakiak hartzeko behar diren txosten tekniko guztien bermea izatea.*

c) *Interes publiko edota soziala behar bezala justifikatzea.*

- *Hirigintza-espedienteak izapidatzerakoan, Udalaren barne kontroleko zerbitzuek –dazkaritza eta kontu-hartzailletza– dauzkaten eginkizunak garatzea.*

- *Aztertzea ez ote den komenigarria hirigintzako izapidaketak eta kudeaketak egiteko langileak izatea.*

#### VI.7. "2000 EFEKTUA" ETA EUROAN SARTZEA

Udalak ongi dakizki milurtearen aldaketak (2000 efektua, zehazki) udal jarduerarako ekar ditzakeen arriskuak, bai eta euroa sartzeak izanen duen eragina ere.

Bi alderdi horiek aplikazio informatikoen hornitzailearekin –ANIMSA– ari dira aztertzen. Horregatik, Udalak ez du uste arrisku horiek eragin handirik izan dezaketarik udal jardueran.

#### VII. ERAKUNDE AUTONOMOAK

Oro har, patronatuek kudeatzen dituzten aurrekontuetako zenbatekoak txikiak dira, eta Kirol eta Kultur Patronatua egon badagoen arren, Udalak bere gastuen ehuneko 13 erabiltzen du kirol eta


kultur jardueretarako. Horrenbestez, eta kontuan izanik Udalak aurrekontu bakarra kudeatzen duela –hartan kode baten bidez bereizten dira patronatuak–, gure gomendioa da zehaztu egin behar dela erakunde autonomoen benetako autonomia maila eta aztertu egin behar dela komenigarria ote den horiek udal zerbitzu dezentralizatu bihurtzea, horien kudeaketaren kontrola, ekonomia eta eraginkortasuna areagotzearen.

Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak proposatuta eman da txosten hau, berau izan baita arduraduna, indarreko arauak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1999ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

**I. ERANSKINA.**  
**ANTSOAINGO UDALAREN ORGANIGRAMA, 1998-12-31KO PLANTILLA ORGANIKOAREN ARABERA**





**II. ERANSKINA. ERABILITAKO ADIERAZLEEN DEFINIZIOA**

- Dirusarrerren betetze maila = 
$$\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$$
- Gastuen betetze maila = 
$$\frac{\text{Aitorturiko obligazioak}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$$
- Kobrantzen betetzea = 
$$\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$$
- Ordainketen betetzea = 
$$\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$$
- Zorpetze maila = 
$$\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Dirusarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$$
- Zorpetzearen muga = 
$$\frac{\text{Dirusarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Dirusarrera arruntak}} \times 100$$
- Zorpetze ahalmena = Muga- zorpetze maila
- Aurrezki garbia = 
$$\frac{\text{Dirusarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Dirusarrera arruntak}} \times 100$$
- Langileen indizea = 
$$\frac{\text{Langileen aitorturiko obligazioak}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$$
- Inbertsio indizea = 
$$\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$$
- Dirulaguntzekiko menpekotasuna = 
$$\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$$
- Dirusarreak biztanleko = 
$$\frac{\text{Aitorturiko eskubideak}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$$
- Gastuak biztanleko = 
$$\frac{\text{Aitorturiko obligazioak}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$$
- Gastu arruntak biztanleko = 
$$\frac{\text{Aitorturiko obligazioak (1-4 kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$$
- Presio fiskala edo tributu bidezko dirusarrerak biztanleko = 
$$\frac{\text{Tributu bidezko dirusarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$$
- Finantza-zama biztanleko = 
$$\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$$

## 1. UDALAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Alfredo García López Antsoaingo Udaleko alkate udalburuak hauxe jakinarazi nahi diot Nafarroako Kontuen Ganbarako lehendakariari:

Kontuen Ganbarak Antsoaingo Udalari buruz egin duen behin-behineko fiskalizazio txostena –1998ko ekitaldiari buruzkoa– jaso dut, eta legeak ezarritako epearen barruan, aurkeztu egiten ditut ondoko

### ALEGAZIOAK

#### VI.6.4. atala dela-eta:

Udal planeamenduari jarraikiz garatutako exekuzio-unitateen irabazteko aprobetxamenduen % 10 edo 15 lagatzen atera diren lursailak udal ondarrera bildu ditu Antsoaingo Udalak (1983ko plana, 1992 eta 1993ko aldaketak, 1994ko berrazterketa eta 1997ko udal plana), 10/1994 Foru Legeko 267.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriaz. Horretarako arrazoia da ez dagoela udal jabetzapeko lurrik hiri lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuak.

Irabazteko aprobetxamendu-lagapenetatik sortutako lur horiek eskaintza publiko bidez saldu dira (foru lege bereko 273. artikulua), eta bertan babes ofizialeko etxebizitzak sustatu dira. Foru lege horretako 265.2 artikuluan adierazten den legez, salmenta horretatik atera dena udal ondarea korntserbatu eta handitzeko erabili da.

Adierazi beharra dago aipatu 265.2 artikuluan ez duela lur ondarea aipatzen, ezpada ere ondarea oro har. Hartara, idazketa ez dator bat Estatu-ko Lurzoruari buruzko 1992ko testu bateratuan horren baliokidea den artikuluan emandakoarekin –foru legea onetsi zen garai berekoa hura ere.

Egiaztatu daitekeenez, irabazi horiekin zuzkidura eta eraikin publikoetako udal inbertsioak finantziatu dira, ondare publikoa alegia, eta ez dira erabili gastu arrunta finantzatzeko.

#### VI.6.5. atala dela-eta:

Egindako gomendioei buruz, argitu egin behar da ezen legeak eskatzen dituenak bete egiten

dituela Udalak, eta hortaz, gomendio horiek ezin dute kudeaketa-eskasiaren adierazle izan.

Izan ere, gomendio horien arabera:

- Oro har, ezarritako hirigintza-betebeharrak betetzen ditu Udalak.

- Hirigintza-espeditenteen izapidaketa egitean, horien garbitasuna eta publikotasuna bermatzeko dokumentazio guztia jasotzen du Udalak, txosten teknikoen babesarekin eta interes publiko eta sozialaren aldetiko justifikazioarekin.

- Hirigintza-espeditenteak izapidatzerakoan, Udalaren barne kontroleko zerbitzuek –dazkaritza eta kontu-hartzailletza– dauzkaten eginkizunak legeak eskatutakoak dira.

Azaldutakoarengatik, hauxe eskatzen diot Kontuen Ganbarari: idazki hau eta alegazioak aurkeztutzat jo ditzan eta horietan azaldutakoa aintzat hartuz behin-behineko txostena alda dezan.

Antsoainen, 1999ko azaroaren 5ean

Alkate udalburua, Alfredo García López

## 2. UDALAK AURKEZTU DITUEN ALEGAZIOEI KONTUEN GANBARAK EMANDAKO ERANTZUNA

Antsoaingo Udalak behin-behineko txostenari egindako alegazioak jaso eta aztertu ondotik, Ganbara honek behin betikotzat jo du txosten hori, alegazioek ez baitiote haren edukari eragiten.

Halere, ondokoa nabarmendu egin nahi dugu: egia da Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 265.2 artikulua ez duela espresuki aipatzen “lurzoru publikoa”, baina ezin dugu ahaztu aipatu artikulua hori “Lurzoru-ondare publikoak” izeneko kapituluaren barruan dagoela, eta hori da, gure ustez, interpretazio zuzena.

Iruñean, 1999ko azaroaren 15ean

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

## Tafallako Udalarari buruzko fiskalizazio-txostena, 1998ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 22an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Tafallako Udalarari buruz egin-dako fiskalizazio txostena, 1998ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1999ko azaroaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### Tafallako Udalarari buruzko fiskalizazio-txostena, 1998ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

#### AURKIBIDEA

- I. Sarrera (19. or.).
- II. Helburua (20. or.).
- III. Norainokoa (20. or.).
- IV. Iritzia (20. or.).
  - IV.1. Udala (21. or.).
- V. Finantzei buruzko egoera-orriak (21. or.).
  - V.1. Egoera-orri bateratuak (21. or.).
- VI. Tafallako Udalarari buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (24. or.).
  - VI.1. 1998ko aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (24. or.).
  - VI.2. Finantza-egoera 1998ko abenduaren 31n. (26. or.).
  - VI.3. Gorabeherak (27. or.).
  - VI.4. Administrazio kontratazioa (28. or.).
  - VI.5. Kudeaketari buruzko gomendioak (29. or.).
  - VI.6. 2000 efektua eta euroa sartzea (30. or.).
  - VI.7. Hirigintza. (30. or.).
- VII. Erakunde Autonomoak (30. or.).
  - VII.1. Udalaren Zerbitzu Terapeutikoa (31. or.).
  - VII.2. Udaleko Musika Eskola (31. or.).
  - VII.3. Kutur Patronatua (31. or.).
  - VII.4. Kirolen Udal Patronatua (32. or.).
  - VII.5. Eskualdeko Kirol Elkarte (32. or.).

I. **eranskina.** Udalaren organigrama, 1998ko plantilla organikoaren arabera (33. or.).

II. **eranskina.** Erabilitako adierazleen definizioa (34. or.).

#### I. SARRERA

Tafallako Udala Nafarroako erdialdean dago, Iruñetik 40 kilometrotara. 1998an, 10.250 biztanle zituen.

Gainera, bere jarduera burutzeko, honako erakunde autonomo hauek dauzka:

- Udaleko Musika Eskola
- Kulturaren Udal Patronatua
- Kirolen Udal Patronatua
- Eskualdeko Kirol Elkarte
- Gizarte Zerbitzuen Elkarte
- “Nuestra Señora de la Caridad” Zaharrentzako Egoitza eta Ospitalea.

Gainera, funtzionatzeko nolabaiteko autonomia duen zerbitzu bat ere badu:

- Udalaren Zerbitzu Terapeutikoa

Bestalde, Mairagako Mankomunitatearen barruan ere badago, zeinak bere gain hartzen baititu bai uraren ziklo integrala eta bai hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua ere –azken hori 1998ko abuztutik hasita–.

Udalak bere kontuetan Udalaren Zerbitzu Terapeutikoenak ere sartzen ditu, bai eta aipatu erakunde autonomoenak ere, salbu “Nuestra Señora de la Caridad” Zaharrentzako Egoitza eta Ospitalearenak; izan ere, azken horrek bereiz aurrezten ditu kontuak (egoerari buruzko balantzea eta irabazien eta galeren kontua). Udalaren eta bere erakunde autonomoen 1998ko zifrarik garrantzitsuenak honako lauki honetan adierazten dira:

(pezetak, milioitan)

Entitatea	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko eskubideak	98-12-31ko langileria
Udala	1.253	1.249	105
Udalaren Zerbitzu Terapeutikoa	20	10	0
Musika Eskola	41	31	13
Kultur Patronatua	35	5	1
Kirol Patronatua	81	41	4
Eskualdeko Kirol Elkarte	7	6	0
<b>Guztira</b>	<b>1.437</b>	<b>1.342</b>	<b>123</b>

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Tafallako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1998ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu. Halaber, ekitaldi horretako gastu- eta dirusarrera-aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Toki entitateari aplikatu behar zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aurretik aipaturiko legeek, Toki Araubidearen Oinarriak eraentzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak, administrazio-kontratazioari nahiz hirigintza-kudeaketari buruzko arauak eta Nafarroako toki-enteei orokorki aplikatzeak zaizkion gainontzeko arauak.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

- a) Tafallako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1998ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.
- b) 1998ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera islatzea, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz.
- c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkoa sun-printzipioari lotua egon ote den.
- d) Udalaren 1998ko abenduaren 31ko finantza-egoera.
- e) Kontuen Ganbara honek 1992ko fiskalizazio txostenean eman zituen gomendioak noraino bete diren.

## III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganbarak Tafallako Udalaren (hemendik aurrera, Udala) eta haren erakunde autonomoen 1998ko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Udalak Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra ezarrita dauka. Erakunde autonomoek ere badute kontabilitate orokorra, Udalean ezarritako kontabilitate-ereduaren aplikazio sinplifikatu bati esker.

Beraz, eginiko lanak hauxe izan du arretagai: dirusarrera eta gastuei buruzko atal ekonomikoak eta ondare-masak berrikustea, eta antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertzea.

Hirigintzari dagokionez, gure lanaren arretagai nagusia Plan Orokorra betetzearen azterketa egitea izan da, haren aldaketak aztertuz eta aurreikuspenak zein neurritan bete diren ikertuz.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipio eta -arauei jarraituz burutu dugu lana. Era berean, Udalari aldeztu aurretik bidalitako galdera-sortak agerian utzitako egoera eta arazoak kontuan harturik, beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatu ditugu.

Hona egin dugun lanaren muga nagusiak:

- Ez ditugu Zaharrentzako Egoitza eta Ospitalearen 1998ko kontuak aztertu, halakorik ez zegoelako.
- Bestalde, adierazi behar dugu ezin izan ditugula eskatu behar zen epean Udalak hirugarren zordunekin eta hatzekodunekin dituen saldoen konfirmazioak –salbu Nafarroako Gobernuaren banku-entitate eta instituzioei dagozkienak–, sistema informatikoarekin izandako arazo bazuen ondorioz.

Txostenean daude Udalaren antolamendua, barne-kontrola, efikazia eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Azterketa lana 1998ko ekainean eta uztailan egin dugu.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu Udaletxeko eta haren erakunde autonomoetako langileei.

## IV. IRITZIA

Burururiko fiskalizazioaren esparruan, Tafallako Udaleko eta haren erakunde autonomoetako 1998ko ekitaldiko egoera-orri finantzario bateratuak aztertu ditugu. Egoera-orri horiek Udalaren erantzukizunaren menpe egin dira; txosten honetako V. atalean jaso ditugu, laburturik.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzia hau agertuko dugu:

## IV.1. TAFALLAKO UDALA

### IV.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez

Honekin batera doa 1998ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, eta garrantzizkoak diren ikuspegi guztiei dagokienean agertzen du ekitaldiko jarduera eta 1998ko abenduaren 31ko diruzaintzako gerakinaren behar bezalako irudia. Indarra duten arauen arabera landu da.

### IV.1.2. Ondare-egoeraren agerpena 1998ko abenduaren 31n

Ibilgetua osatzen duten saldoen fidagarritasun- ezak eta udal inbentarioa –1993koa– gaurkotu gabe egoteak ezinezko egiten digute Udalaren 1997ko abenduaren 31ko ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

### IV.1.3. Legezatasuna

Oro har, Udalaren eta haren erakunde autonomoen jarduera ekonomiko-finantzarioa legezatasun-printzipioari jarraituz burutu da, administrazio-kontratazioaren esparruan izan ezik, non ikusi ahal izan baita, azterturiko kasuetan, gai horri buruzko arauak hautsi egin dituela.

### IV.1.4. 1998ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa

Tafallako Udalak finantza-egoera eroso era-kusten zuen 1998ko abenduaren 31n: diruzaintzako gerakin negatiboa –59 milioi–, aurrezpen gar-biko ehuneko txikia –ehuneko 7–, 511 milioi pezetako epe luzerako zorra, ehuneko 8ko zorpetze-maila eta ehuneko 15eko zorpetze-muga.

Hala eta guztiz ere, halako hobekuntza bat nabari da adierazle ekonomikoetan 1997koekin alderatzen baditugu.

### IV.1.5. Kontuen Ganbararen gomendioen jarraipena.

Oro har, esan daiteke 1992ko txosteneko administrazio- eta kontabilitate-izaerako gomendio nagusiak aintzat hartuak izan direla.

Laburbilduz, eta ondorio orokor bezala, adierazi behar dugu Tafallako Udalak ondokoak egin behar dituela:

- Ikuspegi administratibotik aurrekontuak zuzen kudeatzen baditu ere, barne kontroleko mekanismoak indartu edo/eta osatu behar dira, egindako eragiketak bermatzeko, batez ere bai saldoen berdinkatzeari eta berraztertzeari dago-

kienez eta bai inbentarioak eguneratzeari dago-kienez ere.

- Sektore publikoaren kontabilitateari buruzko plan orokorrean aurreikusitako urteko oroit-idazkia egitea.

- Zorrozkari bete behar du administrazio-kontratazioari buruzko araudia, bereziki gai hauei dagokienean: kontratazio-espeditenteak eratzea, proiektu-esleipenean konkurrentzia-printzipioa aplikatzea eta exekuzio-epeak jarraitu eta kontrolatzea. Era berean, barne-kontrolerako mekanismoak indartzea komeni da, bereziki aholkularitza juridikoari dagokionez.

- Hirigintzaren kudeaketari dagokionez, bete-behar orokor batzuk betetzea eta jarduketak kontrolatzeko eta teknikoki jarraitzeko sistemak hobetzea.

- Erakunde autonomoei dagokionez, Udalak berak kudeatzen dituzenez, aurreko iruzkinak aplikagarri dira haientzat ere. Betiere, beharrezkoa da haien eginkizunak eta haien autonomia erreala argi eta garbi finkatzea.

Azkenik, ondokoa azpimarratu behar dugu: 1992ko aurrekontuei buruzko txostenarekin alderatuta, eboluzio positiboa antzeman dugu Udalaren kudeaketan, bereziki aurrekontu-kontabilitatearen kudeaketan eta administrazio-kontratazioan.

## V. FINANTZA EGOERA-ORRIAK

Jarraian, Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzei buruzko egoera-orri bateratuak aurkezten ditugu. Txostena baliagarriagoa izan dadin, azalpena honako hauetara mugatuko dugu:

### V.1. EGOERA-ORRI BATERATUAK

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1998ko gastu- eta dirusarrera-aurrekontu bateratuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera-koa.

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1998ko gastu-aurrekontu bateratuaren likidazioa, sailkapen ekonomikoaren arabera-koa.

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1998ko abenduaren 31ko egoera bateratuari buruzko balantzea.

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1998ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakin bateratua.

**Tafallako Udala eta haren erakunde autonomoak, 1998**  
**Dirusarrerren aurrekontu bateratua betetzea (pezetak, milakotan)**

	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Alda- ketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko eskubideak	Kobratuta	Kobratzeke	Betetzearen %	Aitorturiko %
Zuzeneko zergak	1	182.632	0	182.632	189.252	109.469	79.783	104	14
Zeharkako zergak	2	120.436	0	120.436	122.926	115.055	7.871	102	9
Tasak eta bestelako dirusar.	3	159.892	997	160.889	155.568	146.418	9.150	97	12
Ohiko transferentziak	4	495.153	2.043	497.196	466.912	438.137	28.775	94	35
Ondare bidezko dirusarrerak	5	38.402	0	38.402	39.288	33.300	5.988	102	3
Inbertsio errealen besterentzea	6	83.203	0	83.203	38.328	29.112	9.216	46	3
Kapital transferentziak	7	383.691	11.198	394.889	177.558	114.716	62.842	45	13
Finantza aktiboen aldaketa	8	201.280	40.631	241.911	152.719	152.719	0	63	11
<b>Dirusarrerak, guztira</b>		<b>1.664.689</b>	<b>54.869</b>	<b>1.719.558</b>	<b>1.342.551</b>	<b>1.138.926</b>	<b>203.625</b>	<b>78</b>	<b>100</b>

**Gastuen aurrekontu bateratuaren betetzea (pezetak, milakotan)**

	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Alda- ketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko obligazioak	Ordainduta	Ordaintzeke	Betetzearen %	Aitorturiko %
Langileen ordainsariak	1	561.746	-338	561.408	533.340	525.807	7.533	95	37
Ondasun arrunt. eta zerb. eros.	2	247.350	9.053	256.403	243.027	209.046	33.981	95	17
Korrituak	3	28.423	-3.939	24.484	24.315	23.696	619	99	2
Ohiko transferentziak	4	60.213	2.053	62.266	47.817	39.628	8.189	77	3
Inbertsio errealak	6	705.388	49.289	754.677	531.638	321.500	210.138	70	37
Kapital transferentziak	7	6.000	-1.000	5.000	1.942	0	1.942	39	0
Finantza aktiboen aldaketa	8	470	-260	210	210	210	0	100	0
Finantza pasiboen aldaketa	9	55.099	11	55.110	55.109	55.109	0	100	4
<b>Gastuak, guztira</b>		<b>1.664.689</b>	<b>54.869</b>	<b>1.719.558</b>	<b>1.437.398</b>	<b>1.174.996</b>	<b>262.402</b>	<b>84</b>	<b>100</b>

**1998ko aurrekontu bateratuaren betetzea, kode funtzional/ekonomikoaren ikuspegitik (pezetak, milakotan)**

Funtzio- nala	Deskribapena	Ondasun							Aitorturiko obligazioak, guztira	Gutzik. gaineko %	
		Langileria- gastuak	arruntak eta zerbitzuak	Finantza- gastuak	Transferentzia arruntak	Inbertsio errealak	Kapital- transferentziak	Finantza- aktiboak			Finantza- pasiboak
01	Zor publikoa	0	0	24.315	0	0	0	0	55.109	79.424	% 6
11	Gobernu-organoak	4.863	5.753	0	0	0	0	0	0	10.616	% 1
12	Administrazio orokorra	35.200	28.801	0	708	229.265	0	210	0	294.184	% 20
22	Segurtasun eta babes zibila	85.349	6.926	0	0	6.205	0	0	0	98.480	% 7
31	Segurtasun eta gizarte-babesa	215.267	1.868	0	49	0	0	0	0	217.184	% 15
32	Gizarte-sustapena	28.934	10.174	0	0	6.200	0	0	0	45.308	% 3
41	Osasuna	15.080	2.086	0	0	0	0	0	0	17.166	% 1
42	Hezkuntza	33.300	14.607	0	0	6.308	0	0	0	54.215	% 4
43	Hirigintza	54.002	30.653	0	789	214.773	1.942	0	0	302.159	% 21
44	Komunitate-ongizatea	13.991	32.888	0	25.351	1.717	0	0	0	73.947	% 5
45	Kultura	25.013	94.794	0	8.575	29.914	0	0	0	158.296	% 11
46	Bestelako komunitate- eta gizarte-zerb.	0	13	0	9.002	0	0	0	0	9.015	% 1
51	Oinarritako azpiegitura eta garraioak	0	0	0	0	14.234	0	0	0	14.234	% 1
53	Nekazaritza-azpiegiturak	0	11.739	0	0	21.802	0	0	0	33.541	% 2
61	Arapetze ekonomikoa	17.152	1.683	0	0	0	0	0	0	18.785	% 1
72	Industria	0	1.091	0	3.342	1.225	5.186	0	0	10.844	% 1
	<b>Guztira</b>	<b>528.151</b>	<b>243.076</b>	<b>24.315</b>	<b>47.816</b>	<b>531.643</b>	<b>7.128</b>	<b>210</b>	<b>55.109</b>	<b>1.437.398</b>	<b>% 100</b>
		<b>% 37</b>	<b>% 17</b>	<b>% 2</b>	<b>% 3</b>	<b>% 37</b>	<b>% 0</b>	<b>% 0</b>	<b>% 4</b>	<b>% 100</b>	

Tafallako Udala  
1998-12-31ko balantzea (pezetak, milakotan)

AKTIBOA	Zenbatekoa	PASIBOA	Zenbatekoa
IBILGETUA	786.440	ONDAREA	-259.844
Ibilgetu materiala	742.685	Ondarea	439.663
Lurzoruak eta ondasun naturalak	133.869	Lagatako ondarea	-699.507
Eraikinak	497.498		
Makineria, instalazioak eta tresneria	45.852	KAPITAL-DIRULAGUNTZAK	366.988
Garraio-elementuak	7.246	Kapital-dirulaguntzak	366.988
Altzariak	35.498		
Informazio-prozesuetarako ekipamend.	22.722		
Ibilgetu ez-materiala	43.545	EPE LUZEKO ZORRAK	511.180
Jabetza intelektuala	0	Jasotako maileguak	511.180
Bestelako ibilgetu ez-materiala	43.545		
Inbertsioak eta erabilera orokor. ondasunak	0	EPE LABURREKO ZORRAK	300.388
Lurrak eta ondasun naturalak	0	Aitorturiko betebeharren hartzekodunak	995
Herri ondasuneko inbertsioak	0	Agindutako ordainketengatiko hartzek.	262.403
Finantza-ibilgetua	0	Entitate publikoak	15.461
Kotizazio ofizialik gabeko akzioak	0	Aurrekontuz besteko bestelako hartzek.	21.529
ZORDUNAK	321.169	APLIKATZEKE DAUDEN KONTUSAILAK	692
Aitorturiko eskubideengatiko zordunak	297.478	Aplikatzeko dauden dirusarrerak	645
Entitate publikoak	13.016	Aplikatzeko dauden bestelako kontusailak	47
Beste hainbat zordun, aurrekontuz kanp.	10.675		
FINANTZA-KONTUAK	-53.423	EMAITZAK	134.782
Aplikatzeko dauden kontusailak	0	Ekitaldiko emaitzak	134.782
Bankuak eta kreditu-erakundeak	-53.423		
ORDENA-KONTUAK	180.987	ORDENA-KONTUAK	180.987
AKTIBOA, GUZTIRA	1.235.173	PASIBOA, GUZTIRA	1.235.173

## Tafallako Udala

## Diruzaintza-gerakin bateratuaren egoera, 1998-12-31n

	Importes (pezetak, milakotan)
1 (+) Ekitaldi-bukaeran kobratzeke dauden zordunak	294.623
Dirusarrera-aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	203.625
Dirusarrera-aurrekontukoak. Itxitako aurrekontua	93.853
Merkataritza eragitekoak	
Beste ente publiko batzuen baliabideetakoak	
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketakoak	23.690
Ken kobratzen zailak diren saldoak	-26.545
Ken behin betiko aplikatzeke dauden eta egin diren dirusar.	
2 (-) Ekitaldi-bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak	-300.387
Gastu-aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	262.403
Gastu-aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	995
Dirusarrera-aurrekontukoak	
Merkataritza eragitekoak	
Beste ente publiko batzuen baliabideetakoak	
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketakoak	36.989
Ken behin betiko aplikatzeke dauden eta egin diren ordainketak	
3 (+) Ekitaldiaren bukaeran diruzaintzan diren fondo likidoak	-53.423
4 Finantziario atxikia duten gastuei atxikitako gerakina	1.092
5 Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina (1 - 2 + 3 - 4)	-60.279
Diruzaintza-gerakina, guztira	-59.187

**VI. TAFALLAKO UDALARI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK****VI.1. 1998KO AURREKONTUAREN BETE-TZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK**

Gastu eta dirusarreraren 1998ko aurrekontuak 1.664 milioiko hasierako kredituak agertzen ditu; hasierako aurreikuspenak horiek baziren ere, zenbait aurrekontu-aldaketa egin dira gastuetan eta dirusarreretan, batez ere bankuarekin zorra hartuz edo kapital transferentziak eginez finantziatu beharreko inbertsio errealen proiektu gehiago izan direlako.

Behin betiko aurrekontuak edo aurrekontu bateratuko gastuek eta dirusarrerek, beraz, 1.719 milioi pezeta egiten dute.

Aitorturiko obligazioak 1.175 milioikoak dira, eta horien betetze-maila ehuneko 84koa da. Hauxe da horren azalpena, funtsean: inbertsioen kapitulua gutxi bete da –ehuneko 70, hau da, 223 milioi pezeta gutxiago gastatu dira inbertsioetan–.

Ehunekoak erabilia, honako hau da haren osaera:

Gastuak	Ehunekoa
Funtzionamendukoak	57
Inbertsiokoak	37
Finantza-kargakoak	6
Guztira	% 100

Ikus daitekeenez, gastu-elementurik garrantzitsuena funtzionamendu-gastuek osatzen dutena da –langileria, ondasunak eta ohiko transferentziak–, gastatzen dituen 100 pezeta bakoitzeko 57 bereganatzen baititu Udalak; langileriarako, zehazki, 37 pezeta erabiltzen dira. 1998an, 1997an bezala, inbertsio handiak egin dira, batez ere zerbitzuetako zuzkiduretan eta urbanizazioetan; gastuen ehuneko 37 egiten dute horiek. Bestalde, finantza-zamak gastuen ehuneko 6 egiten du.



Langileriari dagokionez, 1998ko abenduaren 31n honako langile hauek egin zuten lan Udaltxean eta haren erakunde autonomoetan:

Langileak	Zenbat
Funtzionarioak	54
Lan-kontratudun finkoak	36
Aldi baterako lan-kontratudunak	33
Guztira	123

Ikus daitekeenez, postu guztietatik 7 lanaldi erdikoak edo lanaldi partzialekoak dira; mailari begiratuta, ehuneko 16 A eta B mailetakoa da. Langile gehien dagoen maila, berriz, D maila da: guztien ehuneko 45 daude horretan.

Hona langile funtzionarioak: idazkaria, kontuhartzailea, kultur koordinatzailea, gizarte graduatua, 5 ofizial administrari, laguntzaile administratibo bat, zerbitzu terapeutikoko 3 langile, obra eta zerbitzuetako 17 enplegatu, udaltzaingoari atxikitako 23 langile eta etxezain bat.

Halaber, komeni da esatea guztietatik 6 langile finkok eta aldi baterako langile batek erakunde autonomoetan eta Udalaren Zerbitzu Terapeutikoa egiten dutela lan, nahiz eta formalki ez dauden haiei atxikiak. Haien lansariak Udalak berak ordaintzen ditu.

Zinegotzien lansariak 7,3 milioi egiten dute guztira; horietatik 4,9 alkatetzari dagozkio. Azken multzo horren lansari guztiei PFEZa eta haren atxikpenak aplikatu behar zaizkie.

Finantza-zamari dagokionez, nabarmen jaitsi da 1997arekin alderatuz gero: 55 milioi pezeta gutxiago, hain zuzen ere. Maileguen eta kredituen korrituak kutxa-irizpidearen arabera erregistratzen dira; 1998ko abenduaren 31n 3 milioi pezetako korrituak sortu dituzte.

Aitorturiko eskubideei dagokienez, 1.342 milioikoak dira, betetze-maila ehuneko 78koa izanik. Hona hori azaltzeko kontuan hartu beharreko datuak: aurreikusitako kapital transferentziak gutxi bete dira -395 milioi pezeta zeuden aurreikusita; gero, ordea, 178 milioi pezeta baizik ez da bete, hau da, ehuneko 45eko betetze-maila izan da.

Ehunekoaren araberrako osaerari dagokionez:

Dirusarrerak	Ehunekoa
Transferentzien bidezkoak	48
Tributuen bidezkoak	35
Finantza-dirusarrerak	11
Ondare bidezko dirusarrerak	6
Guztira	% 100

Alegia, 1998ko aurrekontu bateratuaren finantza-iturri nagusia transferentziek, batez ere arruntek, osaturikoa da -aitorturiko 100 pezeta bakoitzeko, 48 pezeta transferentzia arruntetakoak dira-; tributu bidezko dirusarrerak, ordea, ehuneko 35 egiten dute.

Ondoko laukian jasotzen dira tributu-figura nagusiak eta horien zenbatekoa, 1998an aitorturikoa (pezetak, milioitan):

Tributu-figura	Zenbatekoa
Hirilur kontribuzioa	115
Landalur kontribuzioa	7
I. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	44
I. Lursailen plusbaliaren gaineko zerga	23
I. Eraikinen, instalazioen eta obren g. zerga	78
I. Ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga	39
Kirol instalazioak	26
Hondakin solidoen tratamendua	20
Hiltegia	7
Telefonikaren kanona	6
Hirigintza-lizentziak	13
Irekitze-lizentziak	6

Nabarmena da hirilur kontribuzioaren eta eraikuntzaren gaineko zergaren garrantzi berezia, gainontzeko tributu-figurak gainditzen baitituzte.

Udalak ez ditu ordainarazten bide publikoan zangak irekitzeagatik ordaindu beharreko tasak; tasa horiek aukerakoak dira toki entitateentzat; bestalde, ordanantza bat badago haiei buruz. Adierazi digutenez, obretarako lizentzia emateko tasak bai ordainarazten dira; zehapenak ezarritako epeak gainditzen direnean baizik ez dira jarri.

1998an ondasun higiezinak saldu edo trukatzeko eragiketa batzuetan, lehenbizi geroko salmentan edo permutan erabiliko ziren ondasunak erosi dira. Inbertsio errealak besterentzeagatik dirusarrerak erosketen kostu garbien zenbatekoez azaldu dira; 7,4 milioi pezeta egiten dute, eta inbertsio errealak erosi eta besterentzean izandako gastu eta dirusarrera uste baino handiagoen gisa erregistratu behar ziren.

Ez dira kapital transferentzien bidezko dirusarrera gisa erregistratu hirugarren adinekoentzako etxea birmoldatzeko obretarako Nafarroako Gobernutik eta banku-entitate batetik jasotako 32 milioi pezetako zenbatekoa. Halaber, 146 milioi pezetako urbanizazio kuotak agertzen ziren aurrekontuetan, UAO-4 unitateari zegozkienak, baina

ez dira 1998an igorri, obrak atzeraturik dabiltzalako.

Udalak hitzarmen marko bat izenpetu du Nafarroako Gobernuarekin lurzoruaren eta etxebizitzaren arloan; haren bidez, 212 milioi pezeta eta zenbateko horri dagokion BEZa jasoko du, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke lurzorua besterentzearen truke.

1998ko betetze-egoera bateratuak 95 milioiko aurrekontu-defizita erakusten du. Emaidza hori eskubideen eta aitorturiko obligazioen arteko aldearen ondorioa da.

Aurrekontu-emaizak 48 milioi pezetako finantziazio-defizita erakusten du ekitaldian, behin inbertsio errealean gastuen eta haiek finantziatzeko jaso beharreko transferentzien arteko koerlazioezak sorturiko finantziazio-desbideraketak zuzendu ondoren. Jaso beharreko transferentzia horiek erakundeetako dirulaguntzen bitartez edo urbanizazio kuoten bidez jaso behar zituen Udalak.

1998ko abenduaren 31n, ordaintzeke zeuden kopuruak –gastuen erresultak– 263 milioikoak ziren; horietatik, milioi bat aurreko ekitaldietakoa zen. Kobratzeke zeuden kopuruak –dirusarreraren erresultak– guztira 297 milioi egiten zuen; jatorria aurreko ekitaldietan zeukatenak, berriz, ehuneko 47 ziren.

Abenduaren 31ko gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina negatiboa da –59 milioi peze- ta–. Kopuru hori honako honen emaitza da: ordaintzeke zeuden 300 milioi pezetako zorrak, kobratzeke zeuden 271 milioi pezetako dirusarrerak eta 53 milioi pezetako fondo likidoak –hain zuzen ere, fondo likidotzat jo dira 84 milioi pezetako diruzaintza-kredituak eta banaketa-kontuaren 3 milioi pezetako saldo hartzekoduna–. Kobratzen zailtzat jotzen dira 1994ko eta urte horren aurreko itxitako aurrekontuetan kobratzeke zeuden kopuruak, bai eta 1995eko ekitaldiko ehuneko 25, 1996ko ekitaldiko ehuneko 50 eta 1997ko ekitaldiko ehuneko 75 ere.

Ez dira kobratzen zailtzat jotzen –eta ez dira Udalak eginiko kalkuluaren oinarriaren atal bat ere– 1997ko urbanizazio kuotengatikoko saldoak –94 milioi pezeta egiten dute, guztira–; izan ere, horiek guztiak berreskuratzeko modukoak dira, bermaturik baitaude Jabetzaren Erregistroan dagozkien finken zama gisa inskribaturik egotearekin.

Azkenik, ondoko laukian erakusten da, ehunekoak erabiliz, 1998ko gastu-aurrekontuaren betetzea, eginkizun ezberdinen arabera sailkatua.

Deskribapena	Ehunekoa
Zor publikoa	6
Gobernu-organoak	1
Administrazio orokorra	20
Segurtasuna eta babes zibila	7
Segurtasuna eta gizarte-babesa	15
Gizarte-sustapena	3
Osasuna	1
Hezkuntza	4
Hirigintza	21
Komunitatearen ongizatea	5
Kultura eta kirola	11
Azpiegiturak	3
Araubide ekonomikoa	1
Industria	1
Bestelako komunitate- eta gizarte-zerbitzuak	1
Guztira	% 100

Horien azterketa egin ondoren, hauxe azpimarratuko dugu: Udalaren 1998ko gastuaren ehuneko 67 Hirigintzaren, Administrazio Orokorraren, Kultur eta Kirolaren eta Gizarte Babesaren arlokoa da.

## VI.2. FINANTZA-EGOERA 1998ko ABENDUAREN 31n.

1998an Udalak dauzkan ratio edo adierazleak honakoak dira, 1997ko datuekin konparatuta:

Adierazleak	1998	1997
Aurrekontu-defizita (pezetak, milioitan)	95	19
Biztanle bakoitzeko dirusarrerak (pezetak)	131.032	144.368
Biztanle bakoitzeko gastuak (pezetak)	140.289	146.278
Biztanle bakoitzeko finantza-karga (pezetak)	7.752	13.284
Biztanle bakoitzeko tributu-dirusarrerak (pezetak)	45.652	39.645
Kobrantzen betetzea (ehunekoa)	85	78
Ordainketen betetzea (ehunekoa)	82	88
Zorpetze-maila (ehunekoa)	8	16
Zorpetze-muga (ehunekoa)	15	9
Aurrezpen garbia (ehunekoa)	7	-7
Langileria-indizea (ehunekoa)	37	34
Inbertsio-indizea (ehunekoa)	37	38
Dirulaguntzekiko menpekotasuna (ehunekoa)	48	64

Eginiko azterketatik, hauxe azpimarratzen dugu:

- 1998ko ekitaldian 75 milioitan igo da aurrekontu-defizita. Honela azaldu daiteke hori, neurri handi batean: jasotako kapital transferentziekin egin beharreko inbertsioen finantziazioa murriztu egin da, eta, beraz, dirulaguntzetatik heldu diren baliabideak ere nabarmen murriztu dira —ehuneko 64 izatetik ehuneko 48 izatera—; nabarmen gutxitu badira ere, oso handia da ehuneko hori.

- Kontuan hartu behar da Udalak, 1998ko ekitaldiaren bukaeran, epe laburreko bi banku-kreditu lortu dituela: 84 milioi pezeta egiten dute. Fondo likidoak gutxiagotzen dituzte horiek; beraz, finantza-pasiboen aldaketaren ondoriozko dirusarrera gisa eta banku-zor gisa agertzen badira, aurrekontu-defizita aipatu zenbatekoa baino txikiagoa izanen da.

- Biztanle bakoitzeko dirusarrerak biztanle bakoitzeko gastuak baino gutxiago murriztu dira (ehuneko 9 eta ehuneko 4 hurrenez hurren); horrek, halaber, defizit gehikuntza bat ekarri du berekin.

- Biztanle bakoitzeko dirusarrerak ehuneko 15 egin dute gora; langileria-gastuek egiten duten ehunekoa ere igo da. Inbertsioak, ordea, jaitsi egin dira bai 1997an, bai 1998an ere; hain zuzen ere, bi ekitaldi horietan inbertsioen indizea oso altua izan delako, ehuneko 38 eta ehuneko 37 hurrenez hurren.

- Biztanle bakoitzeko finantza-zama ehuneko 42 jaitsi da, eta aurrezki garbia berreskuratu da; izan ere, 1997an negatiboa zen hori. Horrela, finantza egoera hobetu egin da, zorpetze-maila gutxiagotu delako: 1998an zorpetze-muga baino txikiagoa da, eta 1997koarekin alderatuta ehuneko 9 izatetik ehuneko 16 izatera pasa da.

1998ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokionez, hona azalpena (pezetak, milioitan):

Adierazleak	1998
Diruzaintza-gerakina	-59
Epe luzeko zorra	511

Hau da, Udalak 1998ko ekitaldiaren bukaeran zuen finantza-egoerak epe luzeko zorpetze handia erakusten du. Horrek esan nahi du hurrengo

ekitaldietan baliabide ugari erabili beharko direla sortzen diren finantza-zamei aurre egiteko.

Azkenik, ondoko laukian, Tafallako eta Nafarroako biztanle-tarte bereko beste udal batzuen 1998ko zenbait ratori buruzko informazioa eta 1997ko batez bestekoa alderatu ditugu<sup>(1)</sup>.

Ratioak	10.000-50.000 bizt. bitarteko udalak, 1997	Tafalla 1998
Gastu arrunta/biztanle (pezetatan)	80.258	82.813
Dirusarrera arrunta /biztanle (pezetatan)	99.772	95.056
Zerga dirusarrera/biztanle (pezetatan)	54.593	45.652
Zorpetze-muga	% 23	% 15
Zorpetze-maila	% 7	% 8
Zorpetze-ahalmena	% 16	% 7

Alderaketa horrek dituen mugak kontuan izanik, ondokoa adierazi behar dugu, garrantzitsuena delakoan: Tafallako per capita gastuak eta per capita dirusarrerak bere biztanle-tartekoen batez bestekoaren maila berean daude —tributu bidezko dirusarrerak alde batera utzita—, baina zorpetze-ahalmen txikiagoa du.

### VI.3. GORABEHERAK

Udalak emandako informazioaren arabera, honako hauek dira ebazteke dauden errekurso nagusiak:

- Erreibindikazio akzioko demanda zibil bat —1999an jarritakoa—, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak higiezin bat dela eta jarritakoa. 3.500.000 pezetakoa da guztira, gutxi gorabehera.

- Lur kontribuzioaren likidazioen aurkako gora jotzeko errekursoak, gai hauei buruzkoak: katastro-aldaketak, lurzati-berrantolamenduko zenbait gairen ezespina, kalifikazio juridikoaren aldaketak eta URM-12 hirigintza unitatean lursail bat esleitzea.

- Administrazioarekiko auzibide-errekursoak, ondoko gaiak direla eta: AR-4 hirigintza-unitatearen Plan Partzialeko Proiektua behin betiko onesteko Osoko Bilkurak hartutako erabakien aurka, AR-1 unitatea birzatatze Plan partzialaren behin-behineko onespeneren eta hasierako onespeneren aurka, Udaletxerako altzarien kontratazioaren esleipeneren aurka, eta 1996an sorospeneren

(1) Toki Administrazioako Departamentuak igori eta Kontuen Ganbarak Toki Sektore Publikoari buruzko 1997ko txostenean argitaraturiko datuak.

(2) Zerbitzu publikoak emateko moduan eta kalitatean dauden ezberdintasunak gogorarazi nahi ditugu.

kontratua esleitzearen aurka, bai eta proiektua aurkeztearen aurka (1992) eta "quinquenio del burro" izenez ezagutzen den bosturteko sariaren aurka ere.

Ondorio ekonomikoak zenbatets daitezkeen gaietan baizik ez dugu adierazi zein den eragin ekonomikoa. Gainerakoentzat, ezinezko da oraindik eragina zehaztea.

1998ko abenduaren 31n, Udalak ordaindu beharreko zerga guztiak ikuskatzeko moduan daude, eta, beraz, haien behin betiko likidazioa egin daiteke.

#### VI.4. ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA

Atal hau banatu egin da, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko hainbat puntutan, eta, bestetik, inbertsioetan.

##### VI.4.1. Hornidurak erostea eta zerbitzuak ematea

Eginiko lanetik, hauxe azpimarratzen dugu:

- Erosketen sistemari buruz egindako laginketa dela eta, orokorrean hauxe esan dezakegu: egoia da eta eskaintza merkeenari esleitu zaio. Hala eta guztiz ere, hona gure gomendioak:

a) *Faktura guztiek merkataritza- eta zerga-arauetan eskatzen diren betekizun guztiak (faktura zenbakia, data, igortzailearen eta hartzailearen IFZ, BEZari buruzko xehetasunak eta abar).*

b) *Espediente orotan aholkularitza juridikoaren eta kontu-hartzailearen behar diren txostenak erantsi behar dira. Hitzartutako kontratuak ere ongi kokaturik egon behar dute; kontratu horiek, gainera, legezko gehieneko epemugan formalki berritu behar dira.*

- Garbiketa zerbitzua. Lehiaketa publikoa zen aurreikusitako adjudikazio-prozedura. Bi lizitatzailer bertaratu ziren, baina eman gabe geratu zen bi eskaintza ekonomikoek lizitazio tasa gainditzen zutelako. Hala eta guztiz ere, aurreko bietatik eskaintza merkeenari –12 milioi– adjudikatu zitzaion, behin zegoen aldea ordaintzeko kreditua eman eta gero; beste lizitatzailerak adjudikazioaren aurkako errekursoa aurkeztu du. Kontratazio espedienteetan, ez da ageri gastuaren aurreko fiskalizazioa egin denik, ez kontu-hartzailearen txostenik, ez eta presako izapidaketaren arrazoiak ere.

*Kontratazioari buruzko arauak estu betetzea gomendatzen dugu.*

#### VI.4.2. Inbertsioak

Ondoko kontratazio espedienteak aztertu ditugu, haiek urte anitzetako aurrekontuetan duten egozketa alde batera utzita:

Espedientea	Esleipen-prozedura	1998ko gastua
UAO-4 urbanizazioa	Negoziatua	61
Zaharrentzako egoitza	Lehiaketa	44

Halaber, ekitaldian eginiko inbertsio nagusiei eusteko dokumentazioa aztertu dugu, erregistraturiko gastuaren ehuneko 79 egin arte.

Ondotik, ondorio eta iruzkin aipagarrienak azalduko ditugu:

- Azterturiko kontratazio espedienteetan aurkitu ditugun akats komunak:

a) Proiektuak, batzutan, zuzenean enkargatzen dira, publizitaterik gabe, eta hala egitea zuzen justifikatu gabe.

b) Ez da beti ageri kontu-hartzailearen txostena, ez eta kreditua egoteari buruzko ziurtagiririk ere.

c) Ez dugu kontrol tekniko hertsia bat egin obren hasierari eta bukaerari buruz; pleguetan justifikatu gabeko berandutzeetarako aurreikusitako zehapenak ere ez dira ezarri.

d) Ez da idatziz jaso obraren eboluzioari, gora-beheri, desbideraketei eta laguntzaile teknikoen lansariei buruzko ziurtagiri eta fakturen arrazoizkotasunari eta abarrei buruzko jarraipen teknikorik. Jarraipen hori, gutxienez, inbertsio garrantzitsuenetan eskatu beharko litzateke.

- Obra zehatzak. Atal honetan aztertutako espedienteetako alderdi aipagarrienak azpimarratu ditugu:

a) UAO-4 urbanizazioa. Hona azpimarratzekoak:

1. Proiektua zuzenean esleitu zaio aurkeztu den lizitatzailer bakarrari.

2. Obra egiteko lehiaketa publikoa egin zen. Lau enpresa aurkeztu ziren; horietatik bi ez ziren onartu, aurkezturiko dokumentuetan zeuden akatsengatik; onartutakoek, bi kasuetan, lizitazio-prezioa gainditzen duten eskaintza ekonomikoak aurkeztu zituzte. Hori dela eta, eman gabe geratu da lehiaketa.

3. Beste prozedura bat zabaldu zen, kasu honetan prozedura negoziatua, egunkarietan iragarkiak jarritz eta enpresa gaituei parte hartzeko

gonbitea eginez. Presaz izapidatu beharrekoa dela deklaratzeko da, esleitzeko epeak laburrago egiteko.

4. Espedientean ez da ageri gastua egin baino lehenagoko fiskalizazioa egin denik, ez eta kontu-hartzailetzak txostena eman duenik ere.

5. Esleipen-hartzailea hautatzeko irizpideak ez ziren alde aurretik ponderatu, hartzen zen erabakia behar bezala justifikaturik egon zedin. Bi enpresa baizik ez ziren aurkeztu, eta teknikoki gaitasun gutxiagoa eduki baina eskaintza ekonomiko hobea egin zuen lizitatuazaleari esleitu zitzaion.

6. Obrak egiteko epea 4 hilabete eta erdikoa izan zen –1999ko urtarrilean bukatu behar zuen–, baina aise gaingitu da epea. Lan hau egiteko unean, bukatu gabe zeuden obrak. Atzerapen hori ezin zaio kontratistari egotzi; beraz, ez da inongo zehapenik ezarriko. Hala ere, agerian jarri da ez dagoela obren bilakaerari buruzko ez kontrolik, ez jarraipenik ere.

b) Zaharrentzako etxea birmoldatzea. Hona azpimarratzekoak:

1. Proiektua zuzenean esleitu da, alde aurretik eskatu beharreko eskaintzak eskatu gabe; esleipen-hartzaileak lanaren zati bat azpikontratu egin dio hirugarren bati, eta azken horri ordaintzen dio Udalak azpikontraturiko zatia.

2. Espedientean ez da ageri proiektua esleitzeko kontratua, ez behar zen fidantza ere.

Horren guztiaren ondorioz, ikuskatutako laginari buruzko **laburpen orokor gisa**, Ganbara honek honelako gomendioak egin nahi dizkio Udalari:

- *Udalak zorrozki bete behar du administrazio-kontratazioari buruzko araudia, bereziki gai hauei dagokienean: kontratazio-espeditenteak eratzea, proiektu-esleipenean konkurrentzia-printzipioa aplikatzea eta exekuzio-epeak kontrolatzea.*

- *Ekitaldi bakoitzeko aurrekontuan jasotzea benetan exekutatu direla aurreikusten diren obrak; haien kreditu-dotazioak, banakatuak, ere jasoko dira. Horretarako, behar denean, aurrekontu-aldaketak erabiliko dira; izan ere, hori baita aurreikuspen horiek une jakin edo zehatz baten errealitateara egokitzeko modua.*

## VI.5. BESTELAKO KUDEAKETA-GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Ganbara honen aburuz Udalak jarraitu behar dituen ondorio nagusiak,

bere antolamendu, prozedura, kontabilitate-eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

### VI.5.1. Antolamendu orokorra.

Komenigarria izanen litzateke ondokoei buruzko neurriak hartzea:

- *Udalaren egitura aztertzea, udalaren kudeaketa-beharretarako egokia den egiaztatzeko. Bide horretan, kudeaketa-arloetan oinarrituriko antolamendu-egitura bat egitea azter daiteke.*

- *Barne Araubideari buruzko Erregelamendu bat egitea. Hartan, Udalaren organo exekutiboaren eskumenak eta erakunde autonomoekiko harremanak finkatu eta bereziki beharko dira.*

- *Idatziz ezartzea kudeaketari buruzko oinarriko prozedurak, eta horiek betetzeko faseen arduradunak identifikatu eta zehaztea.*

### VI.5.2. Inbentarioa-lbilgetua

- *Udal ondasunak –bai jabetza publikokoak, bai ondarekoak eta herri-ondasunak ere– eskuratzeko eta erregistratzeko prozesua osatzea.*

- *1993ko udal inbentarioa eguneratu eta onestea.*

- *Udal inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

- *Altak eta bajak kontabilizatzeko prozedurak definitu eta ezartzea, eta ibilgetuaren dokumentazioa artxibatzea kontu horiei aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-irizpideei jarraituz.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak berrikusi eta depuratzea, behar bezala azal ditzaitezen Udalaren ondasunak.*

### VI.5.3. Langileria

- *Langileei buruzko administrazio espeditentetan dagoen dokumentazioa osatzea, espeditente horiek behar duten dokumentazio guztia izan dezaten.*

- *Langileen absentismoari buruzko zenbakizko informazioa prestatzea.*

- *Aseguru-polizak dituzten pertsonen zerranda etengabe gaurkotzea.*

- *Gauzaz ordaindutako lansariei zerga-arautea aplikatzea.*

- *Aldi baterako langileak kontratatuzeko publikizitate nahikoa egitea.*

**VI.5.4. Finantza-gastuak**

- *Finantza-gastuak sortzapen-printzipioaren arabera, eta ez ordainketaren arabera, erregistra-tzea. 1998ko abenduaren 31n ez dira 3 milioi pezeta inguruko sorturiko gastuak erregistratu.*

**VI.5.5. Zordunak eta hartzekodunak**

- *Hirugarrenen kobratzeko eta ordaintzeko saldoen kontabilitate-erregistro eguneratuak izatea, epemugen arabera kobratu eta ordaindu beharreko zenbatekoei buruzko informazio nahikoa izateko.*

**VI.5.6. Tributu-dirusarrerak, tasak eta prezio publikoak**

- *Erroldea erabilgarri edukitzea lurzoruen balio-gehikuntzari buruzko zerga likidatzeko, zerga ordainarazteko behar den epean, eta hura sortzen den ekitaldian kobratzea.*

- *Zorrak agente exekutiboek eskualdatzeko epeak edo aldiak ezartzea, eta kobratzeko borondatezko epea iraganda behar den gainkargua existitzea.*

**VI.5.7. Zordunak-Agentzia Exekutiboa**

- *Ezarritako epea betetzen denean, agente exekutiboarekin dagoen kontratua berritzea.*

**VI.5.8. Kirol Patronatua**

- *Kontratuak berritzeari dagokionez, indarreko arauak aplikatzea, eta behin legez ezarritako gehienezko epea bukatzen denean, kontratatuta zerbitzua esleitzea, kontratazio berria publikoki eskainiz.*

- *Erakunde autonomoak hitzartutako kontratu guztien euskarri den dokumentazioa eskuratu ahal izateko behar diren prozedurak ezartzea.*

**VI.6. 2000 EFEKTUA ETA EUROA SARTZEA**

“2000 efektuaren” ondorioei eta euroa sartzeari dagokienez, esan beharra dago Udalak, bere kanpoko aholkulariei esker, ekipo eta aplikazio informatiko guztiak aztertu dituela, eta arazorik eman dezaketenetan behar direnak egiten ari direla arazoei aurre egiteko. Udalak uste du informatika gaiak berritzeko eta gerta daitezkeen arazoei aurre egiteko kostuak ez direla oso handiak izanen.

**VI.7. HIRIGINTZA****VI.7.1. Alderdi orokorrak**

Tafallak 1986tik du Hirigintza Antolatze Plan Orokor bat. 1993an, Plan hori aztertzeari ekin zitzaion; 1994an behin betiko onetsi zen.

HAPOaren azterketa formulatzeko alderdi nagusiek ondokoa dute oinarri: Tafalla husten ari den eskualde bateko hiriburua da, nahiz eta 10.000 biztanle baino gehiago dituen. Iruñaren alternatibatzat hartzen da bizitzeko, bizi kalitatea eta industri hazkuntzaren igurikapenak eta zerbitzuen ekipamendua orekaturik baitaude. Nafarroako zentro geografikoan dago, autobidea pasatzen den gune batean, non etorkizunean Nafarroako Ubidea, gasbidea eta abiadura handiko trenaren irekieraren baitira.

Hirigintzaren alorreko helburu nagusiak hiri antolamendu eta egiturari eta hiriaren irisgarritasunari buruzkoak dira. Horretarako hirigune bat banandu da berriazko tratamendua behar duten eskualdeetan, eta, halaber, kudeaketa erraztuko duten unitatetan zatitu da; hiru lurzorua, gainera, banaketa-eremuen arabera mugatu da. Banaketa-eremu horiekin lurzoruaren hiru exekuzio-unitateak ezarriko dira, birmoldaketak, berrantolamenduak eta urbanizazioa egiteko. Halaber, hiri lurzorua erabili eta erabiltzeko bideratu nahi da, eta azpiegitura, ekipamendu eta zerbitzuak egokitu nahi dira; horretarako arau-marko bat eta lurzorua garatzeko lehentasuna duen hirigintza-politika bat ezarriko dira, eta hirigintzari, eraikuntzari, esku-ragarritasunari eta jarduera sailkatuei buruzko ordenantzak eman dira.

**VI.7.2. Azterlan ekonomiko eta finantzarioak**

Udalak ez du HAPOa osatzen duten azterlan ekonomiko eta finantzarioaren berriazko jarraipenik egin; ez da inon ageri obrak egiteko aurreikuspenen betetze-mailari buruzko aldizkako azterlanik egin denik, ez eta haien kostu ekonomikoari eta finantziarioari buruzkorik ere.

**VI.7.3. Planeamendua garatu eta betetzea.**

HAPOan ezarritakoaren arabera, hirigintza unitate bakoitzaren garapena plan partzialen edo/eta xehetasun-azterlanen bitartez egiten da. Planeamenduaren sustapena bai Udalaren beraren ekimenetik bai ekimen pribatutik heldu dira. Haien betetzea planen, azterketen, errekurtsioen, aldaketan eta hirigintza hitzarmenen bitartez arautzen da.

**VII. ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA ZERBITZU DESZENTRALIZATUAK.**

Patronatuen kudeaketa Udalak berak egiten du; patronatuek ez dute jarduten indarreko legeek ematen dieten nortasun berezkoarekin.

Ondotik adierazi ditugun datuek ez dute islatzen erakunde autonomoek eta zerbitzu deszentralizatuek eginiko jardueraren guztia; izan ere, uda-

lak bere gain hartzen du langileria-gastuen, inbertsio-gastuen eta funtzionamenduko zenbait gasturen zati bat.

Erakunde autonomoen egungo egoera aztertu eta argitzea, behar duten autonomiaz janzteko baliabideetarako eta funtzionamendurako, arautan eta estatutuetan jasota dagoen bezala; bestela ere, haiek deuseztu eta haien jarduera udal zerbitzuek hartzea.

### VII.1. UDALAREN ZERBITZU TERAPEUTIKOA

Udalaren Zerbitzu Terapeutikoak 20 milioi pezetatoko aitorturiko obligazioak ditu 1998an; langileria gastuei dagozkien, batez ere, nahiz eta ez duen langilerik atxikita, Udaleko plantillakoak diren langileekin ematen baitu zerbitzua. 10 milioi pezetako eskubideak ditu, Udalak berak egin dion transferentzien bitartez eskuratuak. Ondoko laukian azaltzen ditugu zenbateko horiek, jatorri ekonomikoaren arabera sailkatuak.

(pezetak, milioitan)

Dirusarrerak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Tafallako Udalaren dirulaguntza	10	100
Guztira	10	% 100

(pezetak, milioitan)

Gastuak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Langileria	19	98
Funtzionamendua	1	2
Guztira	20	% 100

1998ko ekitaldian zerbitzua desagertu egin da; handik aurrera, zuzenean kudeatzen du Udalak.

### VII.2. UDALAREN MUSIKA ESKOLA

“Udalaren Musika Eskola” Patronatu edo Erakunde Autonomoak 41 milioi pezetako aitorturiko obligazioak ditu 1998an; eskubideek, berriz, 31 milioi pezeta egiten dute. Ondoko laukietan azaldu ditugu zenbateko horiek, jatorri ekonomikoaren arabera sailkatuak.

(pezetak, milioitan)

Dirusarrerak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Matrikulak eta jaso-agiriak	17	56
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza	14	44
Guztira	31	% 100

(pezetak, milioitan)

Gastuak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Langileria	37	91
Funtzionamendua	3	6
Inbertsioak (tresnak)	1	3
Guztira	41	% 100

Ikus daitekeenez, gastuaren egitura batez ere langileen gastuetan oinarritzen da: logikoa da hori, ikusita Eskolak nolako zerbitzua ematen duen. Dirusarrerei dogokienez, berriz, zentroak sorturiko diru-baliabideek aurrekontuaren ehuneko 56 egiten dute; beharrezkoa da, beraz, kanpoko finantzaketa –dirulaguntzen bidez–, bai Nafarroako Gobernuarena bai Udalarena berarena ere; ehuneko 44 egiten du.

Langileei dagokienez, 1998 urtearen buketan, Eskolak honako langile hauek zituen:

Langileak	Finkoak	Aldi baterako	Guztira
Irakasleak	7	5	12
Irakasle ez direnak	1	-	1
Guztira	8	51	13

Horietatik 5 aldi baterako kontratatuturik daude. Administrazio eta kontabilitatea lanak, berriz, Udalak berak egiten ditu. Irakasle ez direnen multzoko langilea, berriz, ethezain bat da.

### VII.3. KULTUR PATRONATUA

Kultur Patronatuak 35 milioi pezetako aitorturiko obligazioak ditu 1998an; aitorturiko eskubideek, berriz, 5 milioi egiten dute. Ondoko laukietan zenbateko horiek jatorri ekonomikoaren arabera sailkatuak azaldu ditugu:

(pezetak, milioitan)

Dirusarrerak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Tasak	1	20
Dirulaguntzak	4	80
Guztira	5	% 100

(pezetak, milioitan)

Gastuak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Langileria	10	28
Funtzionamendua	23	66
Transferentziak	2	6
Guztira	35	% 100

Gastu nagusiak funtzionamenduari dagozkie; antolatutako ikuskizunak eta jaiak, langileria gastuak eta dirulaguntzen bidezko dirusarrerak sartzen dira haietan. Dirulaguntza horiek banku-entitate batekin sinaturiko hitzarmen batetik datoz.

#### VII.4. KIROLLEN UDAL PATRONATUA

Kirolen Udal Patronatuak 82 milioi pezetako aitorturiko obligazioak ditu; eskubideek, berriz, 41 milioi pezeta egiten dute. Ondoko laukietan zenbateko horiek agertu ditugu, jatorri ekonomikoaren arabera sailkatuz:

(pezetak, milioitan)		
Dirusarrerak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Kuotak eta abonauak	26	63
Bestelako dirusarrerak	1	3
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak	14	34
<b>Guztira</b>	<b>41</b>	<b>% 100</b>

(pezetak, milioitan)		
Gastuak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Langileria	15	18
Funtzionamendua	33	40
Transferentziak	4	5
Inbersioak	30	37
<b>Guztira</b>	<b>82</b>	<b>% 100</b>

Ikus daitekeenez, gastuaren egitura zerbitzuen funtzionamenduko gastuetan eta futbol zelaia zabaltzeko egindako inbertsioetan oinarritzen da, batez ere. Dirusarrerei dagokienez, berriz, zentroak sorturiko baliabideek gastuen ehuneko 32 egiten dute; kanpoko finantziazioa, berriz, Nafarroa-

ko Gobernuak emandakoa da, eta ehuneko 17 egiten du. Gainerako guztia Udalak finantziatzen du.

#### VII.5. ESKUALDEKO KIROL ELKARTEA

Eskualdeko Kirol Elkartek 7 milioi pezetako aitorturiko obligazioak ditu; aitorturiko eskubideek, berriz, 7 milioi pezeta egiten dute. Ondoko laukietan zenbateko horiek azaldu ditugu, jatorri ekonomikoaren arabera sailkatuz:

(pezetak, milioitan)		
Dirusarrerak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Tasak	1	14
Dirulaguntzak	6	86
<b>Guztira</b>	<b>7</b>	<b>% 100</b>

(pezetak, milioitan)		
Gastuak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Langileria	2	29
Funtzionamendua	5	71
<b>Guztira</b>	<b>7</b>	<b>% 100</b>

Gastuak udalak aldi baterako kontrataturiko pertsona bati eta kirol jarduerak, bidaiak eta abarrek sorturikoei dagozkie. Dirulaguntzen bidezko dirusarrerak Nafarroako Gobernutik eta Eskualdeko udaletatik heldu dira.


Ignacio Cabeza del Salvador auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1999ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde



I. ERANSKINA. TAFALLAKO UDALAREN ORGANIGRAMA, 1998KO PLANTILLA ORGANIKOAREN ARABERA.



**II. ERANSKINA. ERABILITAKO ADIERAZLEEN DEFINIZIOA**

- Dirusarreraren betetze maila =  $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Gastuen betetze maila =  $\frac{\text{Aitorturiko obligazioak}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Kobrantzen betetzea =  $\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Ordainketen betetzea =  $\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$
- Zorpetze maila =  $\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Dirusarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$
- Zorpetzearen muga =  $\frac{\text{Dirusarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Dirusarrera arruntak}} \times 100$
- Zorpetze ahalmena = Muga- zorpetze maila
- Aurrezki garbia =  $\frac{\text{Dirusarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Dirusarrera arruntak}} \times 100$
- Langileen indizea =  $\frac{\text{Langileen aitorturiko obligazioak}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$
- Inbertsio indizea =  $\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$
- Dirulaguntzekiko menpekotasuna =  $\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Dirusarreak biztanleko =  $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$
- Gastuak biztanleko =  $\frac{\text{Aitorturiko obligazioak}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$
- Gastu arruntak biztanleko =  $\frac{\text{Aitorturiko obligazioak (1-4 kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$
- Presio fiskala edo tributu bidezko dirusarrerak biztanleko =  $\frac{\text{Tributu bidezko dirusarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$
- Finantza-zama biztanleko =  $\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

